

Goienkaria

2010eko uztailaren 2a > Egubakoitza > X. urtea > 428. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE
www.goiena.net TOKIKOM

"Txahal okela gutxiago eta oilasko bularki gehiago saltzen da krisiagatik"

Agustin Markaide
Eroskiko zuzendari nagusia > 09



G2a

Udako errezeta freskoen gaineko ikastaroa > 25

ARRASATE
Gaur hasiko da Udazabal, kultura eskaintza oparoarekin > 11

ARETXABALETA
Mendi ibilaldia antolatu dute domekarako, lehenengoz > 15

ANTZUOLA
Musika pieza eta dantza berriak estreinatuko dituzte Alardean > 17



ARRASATETIK ROTTERDAMERA Iban Velasco Tourreko irteera puntuan izango da bihar, Rotterdamen. Argazkian, bidaia egin aurretik Arrasateko sarreran, Zigorrolan.

XABIER URTZELAI

KIROLA > TXIRRINDULARITZA

Iban Velascok debuta egingo du Tourrean

LAU URTERA Profesional mailan lau urte egin ondoren iritsiko da Arrasatekoa hitzordu nagusira

BAILARAKOAK Tourrean parte hartzen duen Debagoieneko laugarren ziklista da > 22-23

EKONOMIA > ENPRESA

Lantegi berria ireki du Coprecik

Altsasun zabaldu dute eta hogeigile ari dira > 04

JENDARTEA > JAIK

Aramaion jaiak hasiko dira gaur

Aurten baserritarrek jaurtiko dute txupinazoa > 18

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 06
Elkarrizketa > 08
Herriak > 09-20
Kirola > 22-23
Kultura > 26
Sailkatuak > 27
Telebista-Irratia > 28
Zerbitzuak > 28
Berri-zakua > 29
Eskelak > 29
Non-zer > 30-31

AZPIEGITURAK > BIZIKLETA-BIDEAK

Bidegorrien gaineko iritzia jaso nahi du Foru Aldundiak

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Plana osatu du Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Bizikleta Bideen Atalak, Gipuzkoan egiteko dauden bidegorri zatiak adjudikatzeko. Hasiarako onarpen fasean dago dokumentu hori, eta Aldundiak jendaurrean ipini du, herritarrek

iritziak eta iradokizunak egin ahal izateko. Horretarako epea zabalik dago uztailaren 30era arte, www.gipuzkoaingurumena.net webgunean.

Debagoiengan, urtebetean geldi egon ondoren, berriz ekin die lanei Foru Aldundiak hiru bizikleta-bide tramutan. > 02-03

Guztioi gustatzen zaigu diseinua eta edertasuna.

Mugarri Autoak
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference

Ford Kuga, 2009an gehien saldu zen 4x4 autoa*.

*Informazio iturria: Anfac.

AZPIEGITURAK > BIZIKLETA BIDEAK

Bidegorrien gainean herritarren iritzia jakin nahi du Aldundiak

JENDAURREAN Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Plana ikus daiteke Interneten, eta ekarpenak egin

BULTZADA Garapen Iraunkorreko Sailak bidegorriei "merezi duten bultzada" eman nahi die plan horrekin

ALTERNATIBA Bizikleta autoarekiko alternatiba izan dadin nahi da, eta erabilpen mota hori lehenetsiko da

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Foru Aldundiak indartu egin gura ditu Gipuzkoako bizikleta bideak, bidegorriak. Horretarako, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Plana osatu du Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Saileko Iraunkortasun eta Bizikleta Bideen Atalak. Horren bidez, sarea osatzen duten bide zatiak dagozkien esleitzen dizkie. Orain, Lurralde Arloko Plan hori hasierako onarpen fasean dago, eta horren barruan, Foru Aldundiak erabaki du herri-

tarren iritzia edo iradokizunak eskatzea. Hori egiteko aukera du edozein gipuzkoarrek uztailaren 30era arte, Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuan edo www.gipuzkoaingurumena.net webgunean.

Lurralde Arloko Plan horretan, Iraunkortasun Sailak Gipuzkoako Bizikleta-Bideen Oinarrizko Sarea delakoa sortzea proposatzen du; sail horrek dioenez, Gipuzkoako "bizikleta-bideen sarearen bizkarrezurra" izango dena. 424 kilometro luze den bidea

da, Gipuzkoako hirigune nagusiak elkarrekin lotzen dituena, eta Gipuzkoa zeharkatzen duten bederatz ardatz nagusik osatzen dute: Donostia-Irun, Donostia-Mutriku, Donostia-Beasain, Deba bailara, Urola bailara, Bergara-Beasain, Bidasoa bailara, Leitza-ran bailara eta Ego bailara.

Oinarrizko sareko tramuak eta horien lanak bi multzotan banatzen dira: hiri arteko zatiak Foru Aldundiak egin beharko ditu, eta hiriko zatiak, udalek. Udalerrietako sarrera eta irtee-

ra lekuak Aldundiak ezartzen ditu, eta horiek lotzen dituzten udal sareko trazatuak proposatzen ditu.

"MEREZI DUTEN GARRANTZIA"

Foru Aldundiak berak onartzen du "gaur egun oraindik erdizko erabilera" duela bizikletak garraibide gisa. Garapen Iraunkorreko Iraunkortasun eta Bizikleta Bideen Ataleko arduradunek diotenez, "orain arlo plana tramitatzen ari da, behingoz bizikleta bideei merezi zuten garrantzia



Gizonezko bat bizikletan Bergarako Labegarietako

emateko, eta lurralde antolamenduan dauden beste tresna guztiekin uztartzeko; hiri antolamenduan lur erreserbak ziurtatzeko, beste arlo planekin koordinatzeko eta abar". Gaineratzen dutenez, atal horren "lehentasuna" da "bidegorriak eta bizikletak auto-


BIZIKLETA MARTXA HERRIKOIA

gaur /ostirala

Begarako plazatik mugituko gara

jose luis elkoro

libre



MUGITUKO GARA



bidegorrian.

LEIRE KORTABARRIA

aren alternatiba gisa eguneroko mugikortasunean erabiltzea; bizikleta bideak eraiki, herri gunetan bizikletak zuzenean errepidean erabiltzeko erraztasunak eman", eta "kultura aldaketa bat eman behar dela" ere azpimarratzen dute. "Argi dago horretarako lan handia eta urte asko falta dela", onartzen du Sail horrek.

BERRIZ ERE LANEAN

Debagoieneko ibilbidea lau adarretan banatzen da: Bergara-Antzuola (3,2 km), San Prudentzio-Oñati (6,7 km), Arrasate-Aramaio (5,2 km) eta Leintz Gatzaga (1 km). Horietatik lehentasunekoak jotzen ditu Lurralde Arloko Planak San Prudentzio Bergarekin, Oñatirekin eta Arrasatekin lotuko duten bizikleta bideen zatiak, Lurralde Arloko Planaren lehenengo laurtekoan egin beharrekoak; bigarren laurtekoan egiteko uzten ditu Esko-

riatza-Arlaban eta Leintz Gatzagako adarrak; eta Arrasate-Aramaio programatu gabe dago.

Horri jarraituz, urtebetean gelditua egon ondoren, Debagoieneko hasita dago berriz Foru Aldundia bidegorriko obrak egiten. Hain zuzen ere, hiru tramua egiten dihardu, eta irailerako bukatuta izan daitezkeen nahi du: Eskoriatza iparreko eta hegoaldeko tramua lotzeko bidegorri zatia, 300 metrokoa; 797.572 euroko aurrekontua dute obra horiek. Bigarren zatia da Soraluze-Mekolalde; zorua egokitzen dihardute, eta Soraluzetik hasita, lau kilometro luze den zatia argiztatuko dute -kontuan hartu behar da Soraluzetik Osintxura tartea eginda dagoela (2,25 km), eta Osintxutik Mekolaldera doan zatia falta dela (1,75 km). Lan horiek guztiek 876.900 euroko aurrekontua dute. Azkenik, Bergara-Antzuola zatiko lehenengo eta bigarren

faseetako trazatua 1,52 kilometro luze da eta 675.960 euroko aurrekontuarekin dihardu horiek egiten Dunboa enpresak; hirugarren obra hori uztaileko bukatzekoak ziren, baina atzeratuta dabilta lanak.

Horrez gain, Foru Aldundiak lehentasuna eman dio Oñati-Zubillaga tramuari Arrasate-San Prudentzio eta San Prudentzio-Oñati bidegorrien proiektuaren barruan; horren proiektua ekainaren 19ra arte jendaurrean egon da, eta urte bukaerarako esleitu nahi dituzte lanak, 2,4 milioiko aurrekontuarekin eta 10 hilabete epearekin. Zubillaga-Epele tartea ere aurten esleitu nahi dute.

GEHIENAK, OINEZ

Gipuzkoako herri arteko bidegorri zatiak zenbat erabiltzen diren jakiteko, kontagailu batzuk ditu instalatuta Aldundiak, bere Bizi-

DATUA

62

KILOMETRO

Bukatuta dagoenean 81,03 kilometro luze izango da Debagoieneko bidegorria; bada, 62,08 geratzen dira egiteko.

3

TRAMU

Eskoriatza, Soraluze-Mekolalde (zati bat egin eta gutzia argiztatu) eta Bergara-Antzuolako 1. eta 2. faseak dabil egiten Aldundia.

%84,6

IBILBIDE, OINEZ

Hiri arteko tramuetan 200.000 bidaia egin ziren iaz; horien %84,6, oinez. Bizikletaz %24,7 bidaia gehiago egin ziren 2008an baino.

2009ra, %24,7 hazi zen, eta oinezko erabilera, %1,3 bakarrik. "Ia bidaia guztiak aisialdirako, paseatzeko edo ariketa egiteko dira", esaten du Garapen Iraunkorreko Sailak. Horrez gain, "aste bukaeretan %13 gutxiago erabiltzen da", baina txirrindulariek %10 gehiago erabiltzen dute. Aldundiko Bizikleta Bideen Ataleko arduradunek azaltzen dutenez, Soraluze-Osintxu tartea badauzka berezitasunak: oinezko asko eta bizikleta gutxi dituela.

Errealitate bat da, izan ere, Debagoieneko bidegorriak askotarako erabiltzen direla, eta ez, hainbat herrialdetan gertatzen den moduan, bizikletan ibiltzeko soil-soilik. Askotariko bidegorri motak katalogatu ditu Aldundiak: bizikleta-pistak (galtzadarekiko eta espaloiarekiko paraleloa), bizikleta-lerro babes-tua (galtzadaren zati bat hartzen duena), bizikleta-bazterbidea (errepideko bazterbidea hartzen duena eta fisikoki galtzadarekiko bereizten ez dena)... Garapen Iraunkorreko arduradunek diotenez, "tokian tokiko espazio limitazioak eta beste hainbat arazok mugatzen dute errailen zabalera, txirrindulari eta oinezkoak banandu daitezkeen edo ez, eta abar"; baina gaineratzen dute sail horrek kudeatzen dituen bidegorrietan, "orokorrean, arazo gutxi" daudela oinezkoen eta txirrindularien artean.

Erabileraren inguruko askotariko datuak jakinarazten ditu Foru Aldundiak: hala, 2008an, aztertutako hiri arteko bideetan bi milioi joan-etorri izan ziren; horietatik %78, oinez. Aste bukaeretan, proportzio hori %29ra jaisten da. Erabilera-joera nagusi batzuk daude: eguneroko mugikortasuna, ibilaldiak eta aisialdia, ariketa arina eta kirol gogorra.

kleta Behatokiaren bitartez. Debagoieneko bakarra dago, Soraluze-Osintxu tartean. Osintxu-Mekolalde zatian eta Eskoriatza 2011 urte hasiera aldera beste kontagailu bana jarri nahi ditu. Orain arte dauden datuetatik ondorioztatzen da bidegorriak oinezkoek erabiltzen dituztela gehienbat, eta bizikleta aisialdirako erabiltzen dela gehien, eta ez hainbeste garraiorako.

Hala, iaz 200.000 bidaia egin ziren Gipuzkoako bidegorrietan, eta horietatik %84,6 oinez izan ziren. Hori bai, bizikletazko erabilera asko hazi zen: 2008tik

LABUR

Dauden azpiegiturak aprobetxatu

Lurralde Arloko Planean berresten da Foru Aldundiarenak diren eta egiteko dauden tramua eraikitzeko aprobetxatu nahi direla dagoeneko badauden azpiegiturak: trenbide-plataforma zaharrak, lehendik zeuden bide edo bidezidorrak... Horrez gain, nahi da zati berriak egitea "berrantolatze beharra" duten eremuetan edo "gerora hirigintza-proiektuak egiteko" daudenetan.

Horrelako proiektuak dagoeneko aprobetxatzen dira: hori da, adibidez, Epeleko araztegiko lanen kasua; Espainiako Sustapen Ministerioak egingo du bidegorri zati bat. Oñatin, Zubillagako zubi berriarekin batera egiten dabilta bidegorri zati bat.

LABUR

Lehentasuna, eguneroko bidaiek

Bizikleta-bideen oinarriko sareak "erabilgarria" izan behar du, Aldundiaren esanetan: lekuak konektatzen dituena, eroso eta segurua. Bestetik, "etenaldiak saihestu" beharko ditu; "lurralde mugakideetako sareekin eta Europako sare handiekin lotu" behar du Gipuzkoa; "ingurumen-balioak" kontuan hartu...

Erabiltzaileko lehentasuna izango dute "lana, ikasketak edo kirola edo aisia dela-eta egiten diren 10 km baino gutxiagoko ibilbideak" egingo dituztenak; bigarrenik, "zikloturisten eskakizunei" erantzuna ematen saiatu behar da; hirugarrenik, "errepidez ibiltzen den kirol-bizikletariatzat" izango da.

LABUR

Ibarreko bidegorriak 81,03 km izango ditu

Debagoieneko bidegorri ibilbide osoa 81,03 kilometro luze da, Gipuzkoako bigarren luzeena (Donostia-Beasain da luzeena, 106,54 km hartuta). Horietatik 17,52 udalek eraiki beharrekoak dira (Bizikleta Bideen Oinarriko Udal Sarea); bada, 5,31 daude eginda, eta 12,41 geratzen dira egiteko. Bestetik, Foru Aldundiak egin beharrekoak dira Debagoieneko 63,31 kilometro bidegorri (Bizikleta Bideen Oinarriko Foru Sarea); 13,64 kilometro daude eginda, eta 49,67 dira egin beharrekoak.

Gipuzkoa osoan, 423,86 km ditu sareak, 128,36 udalen ardurapean eta beste 295,5ak Aldundiarenean.

m⁽⁺⁾
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

professional
learning space



HEZKUNTZA MASTERRAK

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa.



Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztasunetan Masterra (EKOMU).



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko Unibertsitate Masterra.



Berrikuntza Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan Masterra.

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Dorleta z/g, 20540 Eskoriatza / Tel. 943 71 41 57

www.mondragon.edu/muplus/hezkuntza

EKONOMIA > MONDRAGON TALDEA

Coprecik 20 langileko lantegia zabaldu berri du Altsasun

Kooperatiba berriaren lantaldean, sektorean esperientzia duten inguruko langileak dabilta lanean; asmoa langileak bazkide egitea da

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETAKO Aretxabaletako Copreci kooperatibak lantegi berria zabaldu du Altsasun. Altsasuko S. Coop. da lantegi berriaren izena.

Copreci enpresa liderra da etxetresna elektrikoetako osagaien fabrikazioan; izan ere, horretan dihardu, etxetresnetarako osagaiak garatzen eta fabrikatzen, 1963an enpresa sortu zenetik.

COPRECI MARKA

Coprecik dagoeneko jakinarazi die jarduera berria martxan dela sektoreko bezeroei, eta, ekaina ezker, kooperatiba berria Copreci markako osagaiak ekoizten dabil.

Kooperatiba berriaren lantaldean, sektorean esperientzia duten inguruko langileak dabilta lanean; eta asmoa da langile horiek bazkide kooperatibista bilakatzea. Hasierako langile taldean hogeitaz dabilta, baina aurreikuspenak dira datozten urteetan kopuru hori handitzea.

INDUSTRIA BIRMOLDAKETA

Enpresa eragiketa horrek Mondragon Korporazioaren babesadunak, industria birmoldaketan diharduen eskualde baten, enplegua sortzeko apustu argia eginez.

Bezeroa bizi esperientzian oinarritzen da Copreci; hau da, gertutik bezeroaren nahiak



Coprecik Aretxabaletan duen lantegia.

A.E.

jarraitzea, fabrikatzaile eta azken erabiltzaileen eskakizunei erantzuten dieten puntako produktuak eginez. Besteak beste, gasezko labe, indukziozko sukalde, garbigailu, ontzi garbigailu, barbakoa eta berogailuarendako produktuak ekoizten dituzte.

COPRECI MUNDUAN

Copreci kooperatiba Aretxabaletan dago, eta 1963an sortu zen.

Gaur egun Aretxabaleta, Altsasu, Mexiko, Brasil, Italia, Txekiar Errepublika, Turkia eta Txinan ditu lantegiak Coprecik.

Copreci Mondragon Taldeko partaidea da, Euskal Herriko lehen enpresa taldea eta zazpigarrena Espainiako enpresen rankingean. Mondragon Taldearen barruan, Mondragon Osagaien Dibisioan kokatzen da Aretxabaletako Copreci.

> HEZKUNTZA

Iraunkortasunerako trantsizioari buruzko hitzaldia hilaren 6an

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko areto nagusian izango da hitzaldia, uztailaren 6an, 18:30ean. Hitzlariak izango dira Ingalaterrak *Transition* mugimenduko Ben Brangwyn eta Peter Lipman. Iraunkortasunerako trantsizioari buruz jardungo dute; hain zuzen, Euskal Herriko ikasbideak aztertuko dituzte. Munduko hainbat herrialdetan martxan jartzen dabilen *Transition* mugimendua ezagutzeko da asmoa.

> HEZKUNTZA

Muk kiroletako bigarren marketin ikastaroa aurkeztu du

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko Etengabeko Prestakuntzaren zuzendari Jose Luis Abaunzek eta Surfrider Foundation-en ordezkari Gregory Le Moignok *Marketing eta management* ikastaro aurreratuaren bigarren edizioa aurkeztu zuten eguaztenean Donostian. Euskal Herriari surf eta kirol irristakorren inguruan ematen den ikastaro bakarra da.

DATUA

200

MILIOI EURO

2010ean 200 milioi euro fakturaztea espero du Coprecik. Lantegi berriarekin Coprecik sendotu egin du merkatuan duen kokapena, eta katalogoa osatzea lortu du.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA



www.debagoiena.net




Lanbide profilak
Debagoieneko Hasierako Lanbide Prestakuntza zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:


1. maila
 - Instalazio Elektrikoen Langileak
 - Iturgintzako Langileak
2. maila
 - Mekanizatuko Langileak
 - Sukalde eta Zerbitzuko langileak

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.


MATRIKULAZIOA
Ekainaren 28tik Uztailaren 16ra
09:00etatik 12:30era

Non: Debagoieneko Garapen Agentzian.
 Nafarroa Etorbidea, 21 Pk: 237 20500 Arrasate
 e-mail: [idazkaritza@lanbidehastapena.com](mailto: idazkaritza@lanbidehastapena.com)
 Telf: 943 792890








2010-2011 IKASTURTEA



FONDO SOCIAL EUROPEO





Merkatarien elkarrekin ez zuten erabaki adosturik hartu; norberaren esku egon zen greba egin edo ez.

GOIENKARIA

HEZKUNTZA ETA MERKATARITZA

Hezkuntza mailan, orokorrean, normal egin zuten lan. Batzuk aipatzearen, Arrasateko Goi Eskolan, institutuan, Bergarako Aranzadi ikastolan eta Aretxabaleto ikastetxeetan lanean izan ziren.

Merkatariei dagokienez, elkarrekin ez zuten erabaki adosturik hartu; denda bakoitzak hartu zuen. Herrien artean alde handia egon zen. Oñatin erosketak egitea zegoen neurrian, Bergaran dena itxita zegoen.

Bestalde, udal guztiek bat egin zuten greba deialdiarekin. Horren harira, aipatzekoa da Eskoriaztakoaren kasua: jaietan murgilduta zeudenez, bi lanuzte eta elkarretaratzea deitu zituen. Hori ez zen izan eguneko protesta bakarra, Arrasaten ere manifestazioa egin zuten-eta arratsaldean.

Bestalde, Debagoiengan lau lagun inputatu zituzten, Ertzaintzak jakinarazi duenez: bat Bergaran, 10:00etan, banketxe bat indarrez itxi nahi izateagatik; eta 10:30ean, hiru Arrasaten, enpresa bat ixten saiatzea egotzita.

DATUETAN ALDE HANDIAK

Balorazioei dagokienez, askotariakoak izan ziren. Sindikatuek grebaren jarraipena Gipuzkoan %75 izan zela esan zuten neurrian, Adegiren esanetan Gipuzkoan langileen %75 lanera joan ziren. Jaurilaritzak egindako balorazioaren arabera, administraziooko langileen %8ek egin zuten greba, eta sektore pribatuko %30ek.

EKONOMIA

Eroskik iaz 103 milioiko irabaziaz izan zituen

Ohiko batzar nagusia egin du egunotan, iazko kontuak eta kudeaketa onartzeko

M.B. > BERGARA

Mondragon Taldeko Eroski kooperatibak ohiko batzar nagusia egin du egunotan, 2009ko ekitaldi ekonomikoko kontuak eta kudeaketa onartzeko. Batzarrean kooperatibak jakinarazi zuen iaz 103 milioi euroko irabaziaz lortu zituela. Bazkide langileen eta kontsumitzaileen 500 ordezkari deituta zeuden bilkura horretan.

Soberakin garbien gainean kontseilu errektoreak aurkeztutako banaketa onartu zuten, eta horren helmuga nagusia lan bazkideen itzulkinak izango dira. Bestalde, heziketa eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste hainbat helburutarako kontribuziora zuzendutako fondoa 4.749.140 euroekin handitzea erabaki zuten.

EKONOMIA > GREBA OROKORRA

Ertzaintzak lau lagun inputatu zituen martitzeneko greban

Udal guztiek greba egin zuten eta enpresetan denetarik egon zen

X. URTZELAI/M. BITERI > BERGARA

Ekainaren 29rako ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, HIRU, EHNE eta CCOO sindikatuek deitutako greba orokorrak ez zuten erantzun bera izan sektore guztietan. Mondragon Taldeko enpresa gehienek normal egin zuten lan; gainerako enpresak, bestelakoa izan zen.

Leintz bailarari dagokionez, Arrasaten, enpresa gehienetan egin zuten greba; batzuk aipatzearen, JMA, Asmobi, Joma, Polmetasa eta Union Cerrajeran.

Bergaran, Lazpiur, Candy, Arcelor, Metagra eta Soralue enpresa handiak itxita egon ziren; eta baita enpresa txiki gehienak ere. Oñatin, Cegasan,

Chinchurretan, Steadlerren, Zahorren eta Garayn, esaterako, greba egin zuten. Antzuolan ere denetarik egon zen; Elayn, adibidez, greba egin zuten eta Goizper eta Matzerrekan, berriz, lanean jardun zuten. Elgetan, azkenik, enpresa gehienek lanuztea egin zuten: Recyde, Sisteco, Elkoro eta Tapen, besteak beste.

BEHERAPEN hauetan

aurkitu zuretzako modukoa

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra



BEHERAPENETAKO bat-bateko maitemintzeen %98k amaiera zoriontsua dute. ❤️

Maitemintu El Boulevard-en

Aurtengo udan zure estiloa berritu nahi baduzu eta beherapenei ahalik eta etekin handiena atera, jo ezazu Irudi-Aholkularitza eta Personal Shopper zerbitzu berrira.



Aukerez beteta. ZUTAZ beteta.



el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz

www.el-boulevard.com
Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440



zabalik

Ixotz Louyest

Harrotasunez 2010

Astelehenean, ekainak 28, Lesbiana, Gay, Transexual, Intersexual eta Bisexualon (LGTIB) Harrotasun Eguna izan da: mundu osoko hiriburuetan kaleak alaituz gure eskubideak aldarrikatu ditugu.

Aurten transexualoi eskaini digute hitza, egun honen sorrera, 1969an poliziaren erasoan aurka gure eskubideak defendatzeko lehen ilaran borrokatu ziren emakume transexualen omenez. Egun, oraindik gure aldarriak hedatzen dihardugu lau haitzara, norbanakoen bilakara librea ustez bermatzen duen konstituzio artikulua ospetsua errespetatu eta pertsona guztien duintasuna berdintasunez bermatu dadin.

Euskal Herriko hiriburuetan atera ginen LGTIB talde eta elkar-teak; gurea, ERRESPETUZ, Donostian atera zen, GEHITUko adiskideekin batera, honakoa aldarrikatzeko:

Dagoen sexu aniztasuna aitortu eta barneratzen duen hezkuntza sistema bat; transexualitatea buruko gaixotasuna dela uste duten pertsonen pentsamoldea aldatzea; osasun publikoan, pertsona transexualei arreta duina bermatzea; lan arloko bazterketa gainditzea okupazio-politika aktiboen bidez eta trans pertsonen aldeko diskriminazio positibo, gizarteratze eta lanpostuen egonkortasunerako neurriak sustatuz; hedabideek trans errealitatearen inguruan eskaintzen duten irudi estereotipatu eta distorsionatua ezabatu, trans pertsona guztien duintasuna errespetatzea bermatuko duen hizkuntza egokia barneratuz; gizartea osotasunean hezi, trans familien eskubideak ere jaso ditzen.

XXI. mendean oraindik trans/homo/bifobiak ez dira desagertu, erro sakoneko beldur hauei aurre egiteko ordua da: elkar errespetatzea lortzen badugu, garaipena guztion izango da!

emakumeon ahotsak

Arrasateko Ahotsak taldearen txokoa

Bake ekimenak hedatzea: eskubidea eta eginbeharra

Hori da Sumaya Farhat-Naserrek (Jordania, 1948) *En la tierra de los olivos-El Aleph*, liburuan aldarrikatu nahi duena. Bertan hainbat emakumek, bi hamarkada luzeetan zehar, egindako lana ezagutzera ematen digu, israeldar eta palestinarren arteko elkarguneak, irtenbideak eta konpromisoak bilatzeko aurrera eroandako borrokan, bake prozesuetako agintarien egoskorkeriaren gainetik.

"Bakea. Hitz polemikoa, manipulatu, galdia, sinesgaitza, batez ere gerra maite dutenen ahoetan dagoenean, bere baitan ere gatazka dakarrena. Bakeak ez du gerra eza bakarrik esan nahi, ezta indar gutxien daukanen amore ematea ere. Bakeak, errespetua, elkarbizitza, eskubideak, betebeharrak, aukera berdintasuna, hautu, mugimendu eta adierazpen askatasuna ere eskatzen ditu".

Ikasturte honi, uztailaren 5ean, 18:30ean, emango diogu amaiera Emakume Txokoa.

Mikel Etxanizi erantzuna

Aintzane Oiarbide
(Gipuzkoako Batzar Nagusietako EAJko batzarkidea)
Bergara

Joan den astean zuk idatzitako gutunari buruz hausnarketa batzuk egin nahi nituzke. Nik ez ditut inoiz gutxietsi Bergarako Udabatz osatzen duen alderdiak. Aralar, EA eta PSE alderdien aipamena egiten dudanean errealitate bat erakutsi besterik ez dut egin. Joan den legealdian bakoitzak izan zuen jarrera eta ardura, eta oraingoan daukana azaldu besterik ez dut egin. Zure gutunean diozunez, "...EAJko zinegotziak 5 besterik ez da". Hau ez al da gure alderdia gutxiestea?

Guk beti errespetatu izan ditugu gehiengoak; beste batzuek, ordea, ezin dute gauza bera esan. Ez neuk eta ez EAJk ez dugu inon esan gehiengoa errespetatzen ez dugunik. Lekuz kanpoko auzia sortzen ari zarela uste dut, benetan.

Joan den astean idatzitako nire gutunaren asmoa ez dut uste ulertu duzunik. Gauza guztien gainetik EAJk, Agurne Barrusok Gobernu Batzordearen izenean GOIENKARIAN idatzitako gutunaren bitartez jaso zituen irainak eta deskalkifikazioak salatzea izan da. Eskubide osoa daukagu bai nik, bai nire Alderdiko edozeinek horrelako egoera bat inolaz ere ez onartzeko. Etxaniz jauna, zuk diozunez zure egiten duzue gutun hori... Ba esan behar dizut tamalgarrria dela zuek ere gure aurkako tonu eta irain horiek ontzat ematea.

Ez ditut nahasi nahi permuta eta irainak. Permutaren inguruan, EAJk ez du auzirik sortu nahi. Bakoitzak, zilegi den moduan, bere proiektuak azaldu ditu. Batzuk babes handiagorekin eta besteak gutxiagorekin, baina denak dira zilegi. Ez dugu horregatik elkarri mokoka jardun behar Bergarako ordezkariak garen alderdiak. Baina kontuz, ez dugu inoiz onartuko gure zinegotzien

gutunak

aurkako inolako mespretxuzko jarrerarik. Eta ez dezala inork permutaren gaia erabili herritarren artean liskarra sortzeko, Bergarako herria izango bailitzateke galtzaile.

Zure erantzunaren parte handi batean zuen jarrera aldaketa justifikatzen jarduten duzu. Politikan eta beste edozein disziplinatan, iritzia edo postura aldatzea zilegi da, baina batzuetan, hainbeste aldaketarekin iparra ere galtzen da. Komeni da norberak bere lehenetsunak argi edukitzea.

Begarako EAJk permutaren inguruan hartu zuen jarreraz "harro" nagoela diozu. Ez dut uste harrokeriaz jokatu dudarik EAJren jarreraren zilegitasuna azaltzen dudalako. Bakoitzak azaldu du bere jarrera eta ez diot honi buelta gehiago emango, guztiak baitira zilegi. Gainera, ez daukagu eskuduntzarik Bergaran permutaren erabaki horri irtenbidea emateko eta UNEDeko patronatuak erabaki beharko du zer egiten duen eskaera horrekin.

Diputazioaren aldetik badakigu ez dagoela erabaki itxirik permutaren aurrean.

Baina zenbakiak ondo egin behar dituzte gipuzkoarren diruak nola kudeatu erabakitze-ko, eta, bestalde, Eusko Jaurlaritzak patronatu horretan parte izateko aukera ere aztertze-ko denbora behar da. Izan ere, Hezkuntzaren eskuduntza Jaurlaritzak duenez, ez da bidezkoa Diputazioak gipuzkoar guztien diruarekin permutak suposatzen duen obra eta lanen gastuen %63ri aurre egin behar izatea. Ondo jakingo duzunez, UNEDeko patronatuak erabakia 2011ko irailerako atzeratu du kontu hauek guztiak eta krisiaren ondorioak aztertze-ko denbora izan dezan. Baina bitartean, UNEDek datorren kurtsoari kondiziotan ekiteko, beharrezko obrak eta lanak egingo dira.

Gauzak honela, Diputazioak zuhurtziaz jokatu duela uste nago, eta, bestalde, EAJk, Bergarako herriaren interesen alde egingo duela dudarik ez izan eta bai UNED eta bai Aranzadi ikastolaren onurarako baliabide guztiak eskatuko ditugula ziur izan.

Bertsoak eta su artifizialak, ezin biak ikusi!

Sergio Marzan
Bergara

Sanjuanetan Arrasaten izan ginen. Ostiralean Monterroneko bertso-trama eta, batez ere, su artifizialak ikusi gura genituen, umeekin geundelako.

Ba ezin izan genuen. Bertso jaialdia bukatu aurretik suak botatzen hasi ziren, eta bertsolariak eurek ozenago abestu behar izan zuten. Are gehiago, azken trakarekin Maialenen agurra izan zen; bueno, gutxi entzun ahal izan genuen. Umeak, suak ikusi barik etxera, poz-pozik...

Hurrengo egunean ere, eguerdi aldera, ekitaldi asko batera: trikitia, txaranga, tinbalak; batzuek isildu behar izatea besteak pasatzeko...

Besterik gabe, hurrengo urterako gauza hauek kontuan izango dituztela espero dut.

IRAKURLEAREN GUTUNAK

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Ibarra kalea 6
20570 BERGARA



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAKO Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailatuko arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak, Goienkaza eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea), **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAKO 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Postea-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritzak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Begarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioiko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

LOS TELARES

LAHORE

ASERPLATA

WOMEN'S SECRET

PACO MARTINEZ

CORTEFIEL

CHARO DUARTE

PIMKIE

EOLO 23

ISKIA

REC

GODO'S

PROMOD

FOOT LOCKER

TRIP COMPLEMENTOS

GOCCO

BEHERAPENAK

- %80raino

SPORTWELL

CARREFOUR

MERKAL CALZADOS

ZAPARRASTRILLO

BIJOU BRIGITTE

SPRINGFIELD

WANAKA

SAMIRA

ATENEA

GORBEIA


ESKORIATZA 10 minutuan.

ARRASATE 13 minutuan.

BERGARA 16 minutuan.

SORALUZE 21 minutuan.

EIBAR 23 minutuan.



GORBEIA
gehien aurretzen duzun tokia

Etxabarri Ibiña
IRTEERA

AP - 1 EIBAR -GORBEIA
(GASTEIZ)



Krisiari aurre egiteko neurriak hartuta, iazko urtea ona izan zen Eroski Taldearendako. Koope-
ratibak 103 milioi euroko irabaziak izan zituen. Aurten ere bide onetik doazela dio Agustin Markaidek, baina ekainean igarri egin dutela kontsumoaren moteltzea. Krisi sasoian kontsumo jorak aldatu egiten direla dio eta marka zuriko produktuak, esaterako, gehiago saltzen direla.

Agustin Markaide > Eroskiko zuzendari nagusia

"Txahal okela gutxiago eta oilasko bularki gehiago saltzen da krisiagatik"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Agustin Markaidek (Arrasate, 1957) azken urtea du hau Eroski Taldeko zuzendari nagusi karguan. Izan ere, datorren urte hasieran, Costan Dacosta taldeko oraingo presidentea ordezkatu du. Hala erabaki zuen Eroski Taldeko batzar nagusiak joan den zapatuan.

Zelako urtea izan da 2009a Eroski Taldearendako?

Zaila. Uste genuena baino askoz ere zailagoa. Aurreikusita geneukan salmentetan jaitsiera izango genuela, baina uste baino okerrago hasi genuen urtea eta egokitu egin behar izan genuen kudeaketa plana egoera berrira. Azkenean, halere, nahiko ondo atera zaigu: 2008ko datuak hobetu egin ditugu, eta koiuntura txar baten hori lortzea ez da makala.

2010erako ze aurreikuspen?

Ekainera arte gauzak hobeto zihoazen, baina hil honetan itxura txarra hartu diogu. Kontsumitzaileak berriro erabaki du gastuak murriztea, duela urte eta erdi egin zuen moduan. Batetik, Gobernuaren neurriek gastuak txikitze eta, bestetik, han eta hemen entzun diren hotsek eron dute jendea aurreztera eta gutxiago gastatzera.

Eroskik ere murriztu ditu gastuak egoera berrira egokitze?

Bai, arlo guztietan. Gehien, pertsonal gastuetan. Jarduera gutxitu egin denez, langileen ordu kopurua ere gutxitu egin da. Ondorioz, ez dugu horrenbeste jende kontratatu aldi baterako kanpainetarako, Gabonetarako eta. Bestalde, banaketan, publizitatean, egiturari dagokionez... neurriak hartu ditugu, baita energia aurrezteko ere. 180 milioi euro aurreztu ditugu 2008arekin alderatuta. Horregatik atera ditugu etekinak.

Zenbatekoak izan dira etekinak?

Kooperatibak 103 milioi euro irabazi ditu, baina, talde osoa kontuan izanda, galerak izan ditugu, 69 milioikoak. 2008an, halere, 88 milioikoak izan ziren galerak.

Zelan eragin dizue kontsumitzaileen joera berriak?

Zuzen-zuzenean. Eguneroko gauza arruntak saltzen ditugu, ez ditugu luxuzko gauzak saltzen. Eta jendeak gauza horietan ere aurrezten du. Ez du, esaterako,

litro edo kilo gutxiago kontsumitzen, baina produktu merkeagoak, balio txikiagokoak erosten ditu. Esate baterako, txahal okela gutxiago eta oilasko bularki gehiago erosten du. Horrek esan gura du iaz kilo eta litro gehiago saldu genuela, baina balioan %6 gutxiago.

Marka zurietako produktuak gehiago saldu dituzue?

Askoz gehiago. Gure markako produktuak dira beste marken fabrikatzaileenak baino %30 edo %50 merkeagoak. Horrek esan gura du askoz ere bolumen handiagoa mugitzen dela, baina balio txikiagokoa. Marka zuria %33 da Eroskin galkorrek diren produktuetan.

Capraboren %75 erosi zuen Eroski Taldeak 2007an. Inbertsio handia izan zen eta hori zalantzan jarri zuenik izan zen.

Caprabo inbertsio ona izan da taldearendako. Orduan egin izan ez bagenu, etorkizunean egin beharrekoa zen. Caprabo ondo doa eta erosi genuenetik irabaziak izan ditu. Egia da, halere, gaur egungo egoeran ez genukeela erosiko. Baina operazio ona izan da. Katalunian merkatu kuota ona dauka eta irabazi egin du zati bat azkeneko urtean eta Madrilen ere ondo kokatuta dago.

Non igarri duzue krisia gehiago, merkataritza-gune handietan ala kaleko supermerkatuetan?

Merkataritza-gune handietan. Krisiagatik kontsumitzaileek hartu duten lehen erabakia izan da autoa gutxiago erabiltzea eta etxearen aldameneko denda gehiago erostea.

Eroski Taldeak hainbat negozio ditu: If lurrin-dendak, Forum Sport, Eroski Bidaiak... Zein dabil ondoen?

Gezurra dirudien arren, krisi sasoian ondoen dabilzanak dira lurrindegia eta kirol produktuen dendak. Eutsi egin die salmentei eta merkatu kuota irabazi dute. Okerren, bidaiak: 2009an ondo hasi ziren, baina uda partean, antza, jendeak utzi egin zion bidaiatzeari.

Uda honetarako ze espero duzue bidaiei dagokionez?

Urtea ondo hasi da, baina Islandiako sumendiaren ke-hodei beltz horrek geldiduna ekarri du. Eta, lehen esan dudana moduan,



Agustin Markaide izango da Eroski Taldeko hurrengo presidentea. ENEKO AZKARATE

LURRIN ETA KIROL DENDAK
"Krisi sasoian ondoen dabilzanak dira lurrindegia eta kirol produktuen dendak"

ARRASATEKO HIPERMERKATUA

"Arrasateko hiperra handitzearekin gura dugu eskualdeko bezeroak hemen geratzea"

kontsumoan jaitsiera igarri dugu ekainean eta uda oso onik ez dugu espero Eroski Bidaietan.

Eroski Taldearen gainekeo datu batzuk eskatuko dizkizut: zenbat langile, zenbat lan bazkide, zenbat denda...

45.000 langile gara eta horietatik 10.000 Euskal Herrian. Bazkideak gara ia 15.000; horietatik, Eroski kooperatiban ia 8.000 eta gainerakoak hortik zehar dauden hipermerkatu eta supermerkatuetakoak. Bestalde, 2.200 bat denda daukagu gure jabegoko-

ak eta beste 500 bat gurekin dabilzan beste dendari batzuenak. Euskal Herrian daukagu gehienak, baina Galizian, Balearretan eta Katalunian merkatu kuota garrantzitsua daukagu.

Uztail hasieran BEZa igo egin da. Zelan eragingo dio horrek Eroskiko bezeroari?

Erabaki dugu BEZarekin jasotako berriro bueltatzea bezeroari. BEZa igotzearen ondorioz garestitutako kopuru hori berori itzuliko diogu txartelen bidez.

Zein da Eroskiren lehiakide nagusia?

Ondoko denda. Esan gura dut toki bakoitzean ezberdina dela. Espainian handienetakoak gara. Lehenengoa Mercadona da, ondoren Carrefour eta hirugarren geu. Eta geure atzetik zerrenda luzea.

Arrasateko Eroskiko hipermerkatua handitzeko asmoa azaldu duzue behin baino gehiagotan. Zelan dago kontua?

Geldi. Hirigintza eskubide batzuk baditugu, baina Udalarekin eztabaidatan gaude. Gurako gure hipermerkatuaren ondoren denda txikiendako tokia handitu, eskualdeko bezeroak autobidea hartu eta Gasteizera-eta joan beharrean hemen gera daitezten.

Hizkuntza aniztasunarekiko konpromisoa dauka Eroskik...

Bai, eta horren erakusle da iaz aitortpen saria eman zigutela hizkuntza propioa duten elkarte autonomoek.

Iaz erabaki zenuten Espainiako supermerkatu edo hipermerkatuetako langileei ere bazkide izateko aukera eskaintzea. Gauzatuz doa?

Ez genuen ere egokienean erabaki. 2009ko urtarrilean hartu genuen erabakia eta urte bereko uztailaren erabaki genuen 2011ra atzeratzea prozesua.

Costan Dacosta Eroski Taldeko presidentea erretiroa hartuko du datorren urtean. Zeu izango zara haren ordezkoa?

Bai, hala erabaki genuen joan den asteko batzar nagusian. Eta Capraboko zuzendari nagusi Jabier Ametzaga izango da nire ordezkoa: Eroski Taldeko zuzendari nagusi berria.

goiena.net/bideoak
Elkarrizketa osoa, webgunean.

Herriak

Arrasate > 10-11 Bergara > 12-13 Oñati > 14 Aretxabaleta > 15 Eskoriatza > 16 Antzuola > 17 Aramaio > 18-19 Elgeta > 20 Gatzaga > 20




> **ARRASATE**
Txatxilipurdiren udalekuan ibiliko dira 410 ume eta gaztetxo > 10



> **ARAMAIO**
Gaur iluntzeko txupinazoarekin hasiko dira San Martin jaiak > 18-19



> **ANTZUOLA**
Musika eta dantza berriak egingo dituzte aurtengo Alardean > 17



> **LEINTZ GATZAGA**
32. Dorletako Ama txirindulari lasterketa jokatu da domekan > 20

OÑATI > GARRAIOA

Lanbusko erabiltzaileak sarituko dituzte aurrerantzean

SARIAK

Hiru erosketa-bonu zozketatuko dituzte: 600 euroko bat eta 100 euroko bi

BALORAZIOA

Udal arduradunek positiboki baloratu dute Lanbusen lehen urtea

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Lanbus zerbitzuaren erabiltzaileak saritu egingo dituzte. Horixe erabaki dute udal arduradunek, eta horixe jakinarazteko agerraldia egin zuten eguaztenean.

Lanera joateko autobusa erabiltzen dutenen artean erosketa-bonuak zozketatuko dituzte; hain justu ere, 600 euroko bonu bat eta 100 euroko bonu bi. Lanbusen era-

bilera bultzatzeko kanpaina atzo hasi zuten, eta abendura arte egingo dute.

ZOZKETARAKO ZENBAKIAK

Erabiltzaile bakoitzak hilero egiten dituen bidaiak hartuko dituzte kontuan. Hori horrela, 15 bidai baina gehiago egiterakoan zozketarako zenbaki bat jasoko du; 30 bidai baina gehiagorekin bi zenbaki; eta 40 baina gehiagorekin hiru zenbaki. 100 euroko lehen zozketa egiteko uztaileko eta abuztuko bidaiak hartuko dituzte kontuan. 100 euroko bigarren zozketa abenduan egingo dute. Era berean, irizpide horixe jarraituko dute ere Foru Aldundiaren sariak emateko orduan. Zozketa bidez, hilero, Diputazioak bere gain hartuko ditu bi erabiltzaileen gastuak. Azkenik, kanpainak irauten duen bitartean (abendura arte), bidai gehien egiten duten enpresa bereko langileen artean 600 euro zozketatuko dituzte.

Erosketa-bonuak herriko dendetan eta ostalaritza enpresetan bakarrik trukatu ahalko dira.

Eguaztenean aurkeztu zuten kanpaina berriaren gaineko informazioa herriko etxe guztietara bidaliko dute. Lanbusen gaineko eta erabiltzaileek irabazi ahal dituzten sarien gaineko informazio orriak bidaliko dituzte.

BALORAZIO POSITIBOA

Lanbusen erabilera bultzatzeko prentsaurrekoan egon ziren Lourdes Idoiaga alkatea; Zerbitzu, Azpiegitura eta Ingurumen batzordeko zinegotzi Jose Mari Igartua; eta Ulmako presidente Xabi Mugartza.

Alkateak azpimarratu zuen Lanbusek lehen urtean harrera ona izan duela, eta "positiboki" baloratu zuen erabiltzaileen erantzuna. "Gustura gaude lehen urteko emaitzekin. Egutero, batez beste, 169 lagunek erabili dute Lanbus, eta hilero 3.029 bidai egin dituzte", esan zuen alkateak.

Era berean, alkateak azpimarratu zuen Lanbus zerbitzuak abantaila asko dituela: "Lanera autoan doazenen kostua nabarmen jaitsi du Lanbusek. Gainera,

ESANAK

"Lehen urteko balorazioa positiboa da, batez ere, erabiltzaile aldetik"

Lourdes Idoiaga > Alkatea

"Lanbusekin onuradunak guztiok gara: enpresak, langileak eta herria"

Xabi Mugartza > Ulmako presidentea

DATUA

3.029

BIDAIA

Horiek dira, batez beste, hilero egindako bidaiak. Egutero 169 lagunek erabili dute lehen urtean.

lantegietako aparkalekuak hustu egiten badira, lantegia handitzeko aukera izango dute arduradunek. Bestalde, herriko zirkulazioa, CO2ren isurtze kutsagarria eta zarata maila asko murriztu ditugu".

ENPRESAK, GUSTURA

Fagor Industrial, Ulma Construcción, Ulma Piping eta Ulma Packaging dira Lanbus zerbitzua erabiltzen dutenak. Enpresa horietako langile oñatiarren %28ek erabili dute autobus berezia.

Enpresetako arduradunek ere balorazio positiboa egin dute. "Lanbus talde-lana izan da, Udalak bideratu duena, baina enpresen konpromisoarekin. Onuradunak guztiok gara: enpresak, langileak eta herria", esan zuen Ulmako presidente Xabi Mugartzak. Gaineratu zuen iraunkortasuna bultzatzeko proiektuetan Ulmaren presentzia "ezinbestekoa" dela, eta etorkizunari begira Lanbustik kanpo dauden Ulmako beste enpresei egitasmoan parte hartzeko "gonbidapena" egingo diela.



Xabi Mugartza, Lourdes Idoiaga, Jose Mari Igartua eta Xabier Berridi, promozio berriko karteekin.

ANABEL DOMINGUEZ

dukiena

J A T E T X E A

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO



ARRASATEKO UDALA > LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

Ehunka lagun etorriko da Arrasatera azterketak egitera

Azterketarik jendetsuena administrari lanposturako izango da: 156 lagun daude deituta

Hiru azterketa irail-urrian dira: bina liburuzain laguntzaile eta peoi eta BAZeko langile bat

UBANE MADERA > ARRASATE

Ehunka lagunek hitzordua dute abuztuko oporrak iritsi arte Arrasaten, azterketak egiteko. Udalaren lanpostu publikoetara aurkeztu direnek egin beharreko azterketak dira. Izan ere, abuztu aurretik egin beharreko azterketa guztiak zehaztu ditu Udalak.

JENDETSUENA, ADMINISTRARIENA

Egubakoitzean, gaur zortzi, da lehen hitzordua: ehorzle lanposturako. 66 lagun daude deituta, eta asko direnez, Uarkape frontoian egingo dute azterketa.

Hortik aurrera, hurrengo 15 egunetan egingo dituzte uda aurreko azterketa guztiak.

Jendetsuena administrari lanposturako azterketa izango da: 156 lagun daude deituta postu bakarra betetzeko. Eta jakina, kasu horretan ere hitzordua Uarkape pilotalekuan egin dute. Eguna, berriz, uztailaren 13, martitzena.

Horren ostean etorriko da bi udaltzain lanpostu betetzeko azterketa. 90 lagunek egingo dute, uztailaren 14an. Obretako ikuskatzaileek, berriz, uztailaren 15ean dute hitzordua. Uztailaren 22an bi azterketa batera egingo dituzte: AUKEAko kudeatzaile izateko eta Ingurumen Eskolako irakasle izateko; eta azkeneko azterketa uztailaren 23n egingo

dute: Gizarte Ongizate Saileko arduradun izateko azterketa.

UDA OSTEAN BESTE HIRU

Uda osteko azterketei dagokienez, Udal Enplegu Saitetik jakin arazi dute irail-urrian egingo dituztela, eta hiru lanposturako azterketak izango direla: Biztanleen Arreta Zerbitzuko langile izateko, bi liburuzain laguntzaile aukeratzeko eta peoi bi aukeratzeko.

Azterketak uda ostean egiteko arrazoia, berriz, da oraindik azterketa horietara aurkeztu direnen onartutako eta baztertu-takoen zerrenda erabakitzen

Deialdiak

Ehorzlea

> Uztailak 8. Uarkapen.

Administrari laguntzaileak

> Uztailak 13. Uarkapen.

Bi udaltzain

> Uztailak 14. Uarkapen.

Obretako ikuskatzaileak

> Uztailak 15. Uarkapen.

AUKEAko kudeatzailea

> Uztailak 20. Kulturaten.

Hiru gizarte laguntzaile eta

Ingurumen Eskolako irakaslea

> Uztailak 22. Uarkapen.

Gizarte Ongizateko arduraduna

> Uztailak 23. Kulturaten.

Azterketak 10:30ean hasiko dira.

dabiltzala Enplegu Sailean, eta horretxegatik ezin izango direla azterketak lehenago egin.

Hori bai, Enplegu Saitetik aditzera eman dute uda aurretik argitaratuko dituztela zerrenda horiek eta uda aurretik, baita ere, zehaztuko dituztela azterketetarako datak.

Gazteak uda giroan Txatxilirekin

Asteon hasi dituzte udalekuak Arrasaten, batzuk ikastetxeen bitartez bideratutakoak, eta beste batzuk, jendetsuenak, Txatxilipurdik bideratutakoak. Kopurutan begiratuta, 410 haur eta gaztek hartuko dute parte Txatxiliko udalekuan; begiraleak, berriz, 43 dira. Udaixe eskaintza (12-16 urtekoendako) ere astelehenean hasi zen; argazkiak erakusten du asteleheneko Tropijaia.



TXATXILIPURDI

> KULTURA

Des-Kontrolen kontzertua bertan behera utzi dute

Des-Kontrol musika taldeak biharko, zapatua, 3 aretoan iragarrita zeukan kontzertua bertan behera utzi dute arazo teknikoengatik. Beraz, ez dute taldearen ibilbidearen gaineko kontzertu erreparatorik egingo, ezta kontzertu berezirik egingo ere. Hain justu, alde aurretik, egun bererako Monterronen egiteko asmoa zuten kontzertua, zuzenekoa ere, bertan behera utzi zuen taldeak.

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

www.mondragon.edu/gep
e-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu
Tel: 943 71 21 91

Oñati gestio
heziketa

www.mondragon.edu/enpresagintza
e-posta: gestioheziketa@gmail.com
Tel: 943 71 80 09

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
2010-2011

Lanerako gertu!

Matrikulazioa
Uztailaren 7tik 13arte
ESKAITZA AKADEMIKOA

MGEP

Oñati Gestio Heziketa

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Industri Ekipoaren Mantenimendua

- Administrazioa eta Finantzak
- Idazkaritza
- Merkataritza Kudeaketa eta Marketing-a




OÑATI GARAJEA

PEUGEOT ETXEKO TAILER OFIZIALA

Salmenta, mekanika, txapa eta pintura

Goribar auzoa 9, OÑATI
Tel.: 943 78 13 50 • Faxa: 943 78 33 69
garageonati@euskalnet.net

PUB
HAIZEA



UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

> OSPAKIZUNA

Dena gertu Errozioak Arrasate andaluziar erara jantz dezan

Herriko andaluziarrek Errozia ospatuko dute domekan. Arrasatearrez gain, Euskal Herriko 16 etxek hartuko dute parte. 20 urte beteko ditu aurtent ospakizunak eta goizetik iluntzera arteko egitaraua prestatu dute: 09:00etan ongi-torria egingo diete etorriko diren 16 etxe andaluziarrei, Al-Andalus elkartearekin. Eta ordu horretatik 20:00ak arte, erlijioa, dantza, musika eta Andaluziako jakiak izango dira protagonista Arruena parkean –Eroski ondoan.

> ATLETISMOA

Parte-hartze askeko probak egingo dira bihar Mojategin

Arrasate Kanpanzar Atletiko taldearen eskutik parte-hartze askeko probak egingo dituzte bihar Mojategin. Hau da, federatuta dauden atleten euren markak zehazteko aukera izango dute, parte hartzerako inongo minimo barik. Pertika, luzera eta altuera jauziak izango dira, emakume zein gizonezkoetan. 11:00etan izango dira pertika eta luzera jauziak eta 12:30ean, berriz, altuerakoak.



Jon Garai, Karmelo Alberdi eta Oihana Aranburu, Kulturateko klaustroan, Udazabal ekimenaren aurkezpenaren ondoren.

J.B.

LEHEN ASTE BUKAERA

Dantza saio bizia eta Latin Festa, hasteko

Gaur hasiko da Udazabal, indartsu eta gogo biziz. Izan ere, lehen egunean bi ekitaldi izango ditugu. Ertza dantza taldeak estreinatuko du egitaraua, *Bihar jaio nintzen* dantza emanaldiarekin. Iragana eta etokizuna dantza ezberdinen bitartez lotuko dute dantzariak, goi mailako emanaldian. 15 minutu eskas irauten du, eta, beraz, puntualtasuna oso garrantzitsua da. Herriko Plazan, 20:00etan.

Bestalde, Arrasate Musikaleko Big Band-ak kontzertua emango du, aurtent Latin Festa egingo dute. Eguraldi onarekin Monterron parkean; bestela, Biterin (22:30).

plazan eta Monterron parkean izango dira. Eta garrantzitsuenak, guztiak doakoak izango dira.

ESKAINZA ERE, ZABAL-ZABAL

Udako giro goxoan gozatzeko denetarik ekitaldiak antolatuta dituzte Udalak: dantza, zinema, zirkua, antzerkia eta musika. Adin eta gustu guztiak asetzeko moduko eskaintza, beraz. Gaur bertan hasiko dira ekitaldiak, eta egitarauak irailaren 11ra arte iraungo du.

Hori bai, abuztuan Monterron parkeko zinema izango da eskaintza bakarra. Film guztiak 22:30ean hasiko dira eta eguraldi txarra egi-ten badu bertan behera geratuko dira, ez da alternatibarik izango.

AISIALDIA > UDAKO ESKAINZA

Udazabal: udan aire zabalera datorren kultur ekitaldi uholdea

Dantza, zinema, zirkua, antzerkia eta dantza protagonista; ekitaldi guztiak Herriko Plazan eta Monterronen izango dira, eta doan

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Izenak berak dioen moduan, udan eta aire zabalean gozatzeko kultur eskaintza da Udazabal. Eguaztenean aurkeztu zuten aurtengo egitaraua, eta, aurrekontua asko murriztu bada ere –%17 txikitu behar izan dute, 12.000 euro gutxiago–, iazko ekitaldi kopuru bera izango da aurtent. Ekimenaren hirugarren edizioa da eta aurtent ere kulturen arteko harremana landu gura izan du Udalak.

Hala, mundu zabaleko hainbat herrialdek euren ikuskizunekin jantziko dute Arrasate. Besteak beste, Belgika, India, Errusia eta Kubako artistak izango dira gurean. Ekitaldi guztiak Herriko Plazan, Seber Altube

ren hirugarren edizioa da eta aurtent ere kulturen arteko harremana landu gura izan du Udalak. Hala, mundu zabaleko hainbat herrialdek euren ikuskizunekin jantziko dute Arrasate. Besteak beste, Belgika, India, Errusia eta Kubako artistak izango dira gurean. Ekitaldi guztiak Herriko Plazan, Seber Altube



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

JAIK > SAN MARTZIALAK

Ehunka lagun igoko dira etzi San Martzialera erromeria ospatzera

Ohi bezala, doako urbano zerbitzua egongo da 09:30-14:00 ordutegian; Elkororen aldeko kamiseta jantzita eroateko dei egin dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

San Martzial jaien barruan ekitaldi ugari egongo dira. Gaur, uztailak 2, hasi eta domekara arte hainbat ekitaldi egongo dira, nahiz eta nagusia domekako erromeria izango den.

Gaur, egubakoitza, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du, 20:00etan, San Pedro parrokian.

Bihar, zapatua, bonba japoniarak egongo dira 18:00etan San Martin plazan eta hori bukatu eta gero, buruhandi eta erraldoiek kalejira egingo dute, Elgoibarko dultzainariak lagunduta. Herriko kaleetan ibiliko dira eta, besteak beste, San Martin plazan dantza egingo dute.

Egun handia domeka izango da. 10:00etan egingo dute igoera gurdiaekin. Horren haritik, San Martzialgo zelaian gurditik banatuko den ardoa Miner Ardoak enpresak eman du aurten, doan.

11:00etan meza nagusia egongo da ermitan eta 12:00etan dantza saioa. Saio hori bukatu eta gero ohiko aurrekua egingo dute hainbat udal arduradun eta herritarrek.

Bazkalaurreari amaiera emateko Juan Mari Narbaitza eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolariek

emanaldia egingo dute eta kantinaren inguruan egiten den abesti herrikoien emanaldiaren ostean bukatu egingo dira ekitaldiak bazkalostera arte.

Hori horrela, 16:00etan ume eta gaztetxoendako jolasak eta herri kirolak egongo dira. 17:30ean irrintzi txapelketa egongo da eta 18:00etan nagusiendako herri

kirolak. Herri kirolerako eta irrintzi txapelketarako izenematea 17:00etan hasiko da, zelaian. Bietan ala bietan izenematea 17:00etan da, zelaian. Herri kirolak bukatu eta gero, Txinparta taldearen eskutik erromeria egongo da eta 21:00etan jaitsiera.

ELKOROREN ALDE

Jose Luis Elkororen aldeko plataformak dei egin du haren alde atera dituzten kamiseta jantzita joateko San Martzialera. Oraindik erosi ez duenak aukera izan-

go du gaur, egubakoitza, San Martin plazan 19:00etan jarriko duten postuan.

Bestetik, jakinarazi dute Elkorok San Martzialen aurrekua egin zueneko argazkia ere jarriko dutela zelaian.

URBANO ZERBITZUA

Dohaineko urbano zerbitzua jarriko du Udalak domekan San Martzialera igotzeko. 09:30-14:00 eta 16:00-20:30 ordutegia izango du eta gorako geltokia izango du Oxirondo plazan.



San Martzialgo erromerian egun pasa, 1948an

Aspaldi ospatzen da San Martzialgo erromeria, eta lehen, gaur egun bezala, lagun eta familiarekin ospatzeko erromeria zen. Ondoko irudian ume eta nagusi mokadutxoak jaten ikus ditzakegu.

Ezkerretik eskumara agertzen dira argazkian: Paco Arrondo, Ruperta Villeras, Asuntxi Arostegi, Patro Martinez, Jose Mari Arrondo, Esther Arrondo eta Benito Arrondo.

Argazkia: Esther Arrondo.
Informazioa: Esther Arrondo.
Urtea: 1948.

> HITZALDIA

Udalbiltzaren gaineko hitzaldia hilaren 6an osoko bilkura aretoan

Uztailaren 15ean hasiko da Udalbiltzaren aurkako epaiketara Auzitegi Nazionalan. Horri aurre egiteko eta ahalik eta salaketa iraunkorrena egiteko lantaldea eratu da Bergaran. Bada, talde horrek hitzaldia antolatu du hilaren 6rako, martitzena, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

Hitzaldiaren helburua da auzipetuei elkartzatua adieraztea eta euren ahotik afezaren nondik norakoak ezagutzera. Hori horrela, Miren Josu Aranburuk, Urretxuko zinegotzi ohi eta Udalbiltzako langile zenak, egingo du berba.


> ELKARTASUNA

Elkororen aldeko bizikleta martxa gaur herriko kaleetan

Abiatuko da San Martin plazatik, 18:45ean, zeharkatuko ditu erdiguneko kaleak eta Labegaraieta eta Poligonora ere iritsiko dira. Hori horrela, Jose Luis Elkororen aldeko plataformako kideek dei egiten dute martxan parte hartzeko.

Bukatutakoan, bat egingo du martxak Elkororen senideek eta gainerako presoen senideek egiten duten elkarretaratzearekin. Elkarretaratzearen ostean, txorizo pintxoak eta ardoa egongo dira, 20:30ean, bertaratzen diren guztiendako.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

CAMACHO

Drogeria
UsaindegiaBidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09GURIA
TabernaBidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34Gure plateren
prezioak ez
ditugu igo.Eta gainera,
plater berriak
dauzkagu.

Proba itzazu!

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARAXanpainezko
sangria
BERRIAPINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

GOIERRI

Autogidarien Eskola

Gidabaimena euskaraz zein gaztelaraz atera dezakezu
Informa zaitez

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA



Kathering Davis abeslari chicagoarra.

GOIENKARIA

Kontzertuen egitaraua

Uztailak 2
Katherine Davis Group

Uztailak 9
Jose Agustin Guereñu 'Gere' 4et

Uztailak 16
Taravellin' Brothers

Uztailak 23
Nevermind People

Emanaldi guztiak Espoloiko kioskoan izango dira, 22:30ean.

KULTURA > MUSIKA

Katherine Davisek irekiko du gaur Espoloiko Ostiral Musikalen 10. edizioa

Lau emanaldik osatuko dute zikloa, ohi bezala, egubakoitzetan, 22:30ean, Espoloian

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Gaur, egubakoitza, izango da Espoloiko Ostiral Musikalen lehenengo emanaldia. Ekimenak 10 urte bete ditu aurrean eta horregatik berezia izatea nahi dute antolatzaile eta laguntzaileek, Udako Kultura Sailak eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak.

Hain justu, Ubane Uzin Gaztelupeko Hotsak zigituko ordezkariek azpimarratu zuen ekimenaren aurkezpenean "eboluzioa handia" izan dela eta "Euskal Herrian bere lekua bete duen ziklo" bilakatu dela.

Urteurren berezia izateko, Katherin Davis ekarri dute -gaur

egun dagoen jazz-blues generoko abeslari garrantzitsuenetakoa eta sailhezu ezinezko erreferentzia Chicagon belaunaldi berriendako - eta hark irekiko du zikloa gaur. "Hona etortzeko eskaintza egin genionean, argi azaldu genion herri txiki bat dela, kiosko batean egingo duela saioa... baina gustura hartu zuen proposamena eta baiezkoa eman zigun, bestelako jaialdiei muzin eginda", azaldu zuen Uzinek.

Egitaraua osatuko dute Jose Agustin Guereñu eskarmentu handiko baxu-jotzaileak, jazz gaitzen duen fusio musikarekin; Travellin' Brothers egungo euskal blues talderik garrantzitsuenak; eta Nevermind People taldeak, Kurt Cobainen kantuak jazzaren hizkuntzara ekarri dituenak.

KULTURA > ARGAZKILARITZA

Juana Mari Gallastegiren argazki erakusketa Aroztegin

Bergararra zuen aita eta hari eskaini nahi dio 'Argazkiaren larruazala' erakusketa

M.B. > BERGARA

Juana Mari Gallastegi eskarmentu handiko argazkilari donostiarrak erakusketa irekiko du gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. 18:00etan irekiko dute eta argazkilaria ere han izango da.

24 lan -tamaina handiko argazkiak eta erliebeak- erakutsiko ditu artistak *Argazkiaren larruazala* izeneko erakusketa eta haren aita zen Julian Gallastegi bergararrari eskaini dio. "Txikitan denok irudikatzen dugu idolo bat; nire herria aita zen. Harengandik ikasi nuen, batez, ere, arduratsu izaten, nekatu gabe jarraitzen, xehetasunak zaintzen. Eta harengandik etorri zitzaizkidan marrazketarako zaletasuna eta, ondoren, argazkilaritzakoa", dio Juana Mari Gallastegik.

Amari ere zor dio erakusketaren zati bat; erliebeena: "Begi-lauso arazoa izan zuen amak eta orduan jabetu nintzen ikusi ezin dutenen egoeraz;

hala, erliebea lantzen hasi nintzen eta 1983an egin nuen lehen argazkia erliebean.

Horrekin guztiarekin, begiekin zein eskuarekin, uki-mena erabilia ikusteko erakusketa da Gallastegirena.

UZTAILAREN 18RA ARTE

Erakusketa ikusgai egongo da uztailaren 18ra arte ohiko ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00 ordutegian.



Juana Mari Gallastegi.

GOIENKARIA

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN VI. ARGAZKI LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



GARIKOITZ ITURBE



ANE JAUREGI



MARTIN URIARTE ASKASIBAR

Har ezazu parte!

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren eta irailaren 17a bitartean.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).

- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarola Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. BERGARA: Ibarra 6 (lehen, Arcelorren bulegoak), 20570 Bergara. ARETXABALETAKO: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta edo Basabe poligonoa E-0-5, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAN eta *Goiena.net*-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAN.
- Epaimahaia argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez balego, GOIENKARIAK aukeraketa egingo luke.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAKO artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak

1. saria: Canon EOS 1000D argazki kamera digitala Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.
10 megapixel / Canon 18-55 mm f3.5-5.6 EF-S objektiboa
2,5 hazbeteko LCD pantaila / Live View sistemarekin / Flash eta guzti.



- 2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Laguntzaileak:





Nos la Suda taldeak kontzertua egingo du bihar arratsaldean, beste bost talderekin.

XAPI PICO

GAZTEAK > FESTA

VI. Gazte Eguna egingo dute bihar plazako pilotalekuan

Herri bazkaria, olinpiadak, manifestazioa eta kontzertua egingo dituzte, besteak beste

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko gazte batzarrekoek jaia egingo dute bihar; hain zuzen ere, VI. Gazte Eguna ospatuko dute. 11:00etan hasita, egun osarako egitaraua prestatu dute. Ekitaldi guztiak plazako pilotalekuan egingo dituzte.

Gazte Eguna girotzen hasteko poteoa egingo dute. 11:00etan bilduko dira pilotalekuan txaranga-garen laguntzarekin kalerik kale ibiltzeko. 14:30ean herri bazkaria egingo dute. Dagoeneko salgai jarri dituzte txartelak Arrano eta Pako tabernetan, bost eurotan.

OLINPIADAK

Bazkaldu ondoren, 17:30ean, olinpiadak egingo dituzte. Taldeka hainbat kirol proba egin behar dituzte parte-hartzaileek. Pako, Ona eta Arrano tabernetan eman daiteke izena olinpiadetan parte hartzeko.

Ondoren, 19:00etan, manifestazioa egingo dute herriko kaltetan euren aldarrikapenak oihukatzen. Eguna bukatzeko musika kontzertua egingo dute. Sei talde igoko dira oholtza gainera: Never Surrender arrasatearrak, Emon bergararrak, Los Zopilotes Txirriaos iruindarrak eta Nos la Suda, Ez! eta Kontaminacion Acustica oñatiarrak. Askotariko musika estiloak entzuteko aukera egingo da. Gainera, Never Surrender, Emon eta Ez! taldeek disko berrietako kantuak joko dituzte.

> OSPAKIZUNA

Mozorro gaua eta erromeria egingo dute bihar Zubillaga auzoan San Pedro jaiak ospatzeko

Zubillagan San Pedro jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Bihar 16:30ean jokoak egingo dituzte eta 17:00etan mus txapelketa. Ondoren, txokolate-jana egingo dute, eta 22:00etan mozorro gaua eta erromeria. Domekan, aldiz, 11:00etan meza egingo dute eta ondoren, *lunch-a*. 17:00etan txorimaloak irtengo dira, 17:30ean zinta lasterketa egingo dute eta 19:00etan toka txapelketa.

> ELKARTASUNA

Argentinarako materiala batzen hasi dira berriro Bidebarrieta kaleko lokalean eta edukiontzi zurian

Hermansoloña GKEa berriro hasi da Argentinara bidaltzeko materiala batzen, azken asteotan 27. edukiontziak prestatzen ibili ondoren. Etxean pilatutako materiala (arropak, liburuak, oinetakoak, sendagaiak...) Bidebarrieta kaleko lokalean utz daiteke; hain justu ere, eguaztenetan eta eguenetan, 18:30etik 20:30era arte. Gainera, lokalaren kanpoaldean dagoen edukiontzi zurian ere utz daitezke poltsak.

oharrak

OSPAKIZUNA


>1964an jaiotakoek kintada egingo dute uztailen

1964an jaiotakoek Etxe Aundin egingo dute bazkaria uztailaren 24an, 14:30ean. Kintadan parte hartu gura dutenek 30 euro sartu behar dituzte lehenbailehen Euskadiko Kutzako 30350005310051041678 zenbakian.

OSPAKIZUNA

>1968an jaiotakoek kintada egingo dute uztailen

1968an jaiotakoek Aretxabaletako Baster Alde jatetxean egingo dute ospakizuna uztailaren 24an, 14:30ean. Parte hartu gura dutenek 30 euro sartu behar dituzte lehenbailehen Euskadiko Kutzako 30350005320051041313 zenbakian.



Orain
MONDRAGON
LINGUA
Oñatiko
ERDIALDEAN



IRAILETIK AURRERA

MONDRAGON LINGUAK lokal berria zabalduko du herriko erdialdean:
Montxon Kalea, 7



INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

Gaur egungo lokalean jasoko dira (ekainean eta uztailen):
Olakua 14



www.mondragonlingua.com



KIROLAK > BIZIKLETA

Mendi bizikleta ibilaldia domekan, lehenengoz gurean

Herriko Plazan izango da irteera (09:00) eta izenematea ere bai aurretik; bi ibilbide daude aukeran: luzea (38 km) eta motza (28 km)

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Mendi bizikleta ibilaldia antolatu dute domekarako, hilak 4. Bizikletan ibiltzea gustuko duten herritar batzuen ekimena izan da eta Leintz Gatzagako Dorletako Ama Txirrindulari Batzordearen laguntza jaso dute. Debagoie-

neko gainerako herri guztietan egin eta gurean bakarrik falta zela halako ibilaldia pentsatuta erabaki dute antolatzea. Aretxabaleta Kirol Elkartearen eta Udalaren babesa ere izango dute etzi lehenengoz egingo duten ibilaldi horretan.



Txirrindulari bi basoan ibilaldia egiten.

MARKEL URIARTE

GOGORRENA, HASIERA

Parte hartu gura dutenendako izenematea gurea Herriko Plazan jarriko dute 08:00-08:45 artean. Federatuta daudenek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu bakoek 15 euro. Irteera 09:00etan da, plazatik bertatik.

Bi ibilbide jarri dituzte aukeran: luzea, 38 kilometrokoa; eta motza, 28 kilometrokoa. Markel Uriarte antolatzaileak hasiera dela gogorrena jakinarazi du: "Urkulutik bueltan Ugastegitik gora igoko gara eta Alabitarira iritsi arteko gunea da gogorra, aldapa handia dagoelako. Handik aurrera samur egiteko modukoa da, bizikletan ibiltzeko ohitura izanez gero". Alabitaratik Usakoztara egingo dute ibilbide luzea aukeratutakoek eta gainerakoak hara jo barik Gatzagako Hiruereketara aldera joango dira zuzenean. Gero Aitzorrotz tontorretik Eskoriatzako Lete auzora egingo dute, Aretxabaletan bukatzeko. Degurian edatekoa izango dute txirrindulariek eta Gure Ametsa jatetxe inguruan jatekoa eta edatekoa. Bukaeran, Herriko Plazan, ere eskainiko dute mokadutxo eta opariak zozketatuko dituzte.

Lehenengoz antolatu dute ibilaldia eta aurten ehun bat lagun etorriko direlakoan daude antolatzaileak. Eta argi daukate jarraipena izango duen ekimena dela, "urtetik urtera indarra hartzen" joango dena.



Hainbat elkartetako ordezkariak egindako berakatz zopa dastatzen. LORAMENDI

EUSKARA > TXAPELKETA

Elkarte arteko olinpiada uztailean bukatuko dute

M.A. > ARETXABALETAKO

Gastronomia elkarten arteko olinpiada antolatu du Loramendi Elkarteak eta hainbat proba egin ostean bukaerara iritsi da. Muru Alde, Uratz Alde eta Urbaltz elkarteak dabilta norgehiagokan eta ekainean berakatz zopa txapelketa egin zuten. Trikiti doinuak lagun hartuta 20 bat lagun elkartu ziren Uratz Alden; lehenengo, txikiteoa

egin zuten eta gero, berakatz zopen dastatzea epaimahaiko kideek. Puntuak banatutakoan guztiak gelditu ziren afaltzera eta erabakiaren berri afalostean eman zuten: Uratz Aldek, 32 puntu; eta Muru Aldek eta Urbaltzek, 28 puntu bakoitzak.

Olinpiada bukaerara iritsi da eta uztailean azken jaia egingo dute Urbaltzen. Sari bana-keta ere orduan izango da.

GAZTERIA > AISIALDIA

250 neska-mutiko hasiko dira gaur udaleku irekietan

Hilaren 23a bitartean jolasak, irteerak... egingo dituzte 3 eta 12 urte artekoek

M.A. > ARETXABALETAKO

Gaur 10:00etan dute hitzordua 250 neska-mutikok Herriko Plazan udalekuei hasiera emateko. Lehenengo, taldetan banatuko dituzte adina kontuan hartuta eta gero, herriko txoko bat aukeratuko dute lanean hasteko. Gazteria Sailak antolatutako udalekuak dira eta ume horiek 26 begirale izango dituzte lagun jolasak, irteerak, jai

berezikiak eta beste hainbat ekin-tza egiteko orduan; guztiak, zuzendaritzako hiru kideren ardurapean.

IRTEERA ASKO

Aurreko urteetako antzeko egitaraua gertatu dute aspertzeko astirik egon ez dadin: San Fermín eguna, uraren eguna, Galartzara gaua pasatzera, azken eguneko jaialdia... Horiekin batera irteerak egingo dituzte, guztiak batera bat mendi aldera, eta nagusienak Debako hondartzara ere bai.

Gainera, birziklapena landuko dute aurten eta jolas kooperatiboak egingo dituzte.



Errekabarren 3, behea ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO



Zenbaki
Aholkulariak



• **Juridikoa:**

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administrazioa: Zigorzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

- **Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
- **Fiskala:** Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- **Kontabilitatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETAKO. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es



Urrutia eta Zubizarreta pilotariak, Eskoriatza kirol elkartearen ordezkariekin eta alkatearekin, txupinazoa bota ondoren.



Martitzeneko prozesioan 50 bat herritarrek parte hartu zuten.



Rantxerekin gozatu zuten eguazten eguerdian.



Barraketan gustura ibili dira asko.



Bandakoak lanpetuta ibili dira egunotan.



Danborradan gustura ibili ziren txikiak; beti bezala, geldiunea egin zuten nagusien egoitzan.



ARGAZKIAK: M.BITERI / G.ARANA / L.MUÑAGORRI

JAIK > SANPEDROAK

Datorren urtera arte agurtu dugu San Pedro

Astelehenetik atzo arte iraun duten jaietan dena aurreikusi bezala irten da; beroa izan da nagusi

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Oier Urrutia eta Mikel Zubizarreta pilotariak izan ziren sanpedroren txupinazoa bota zutenak. Astelehen arratsaldean izan zen hori

eta gauean lehen hitzordu garrantzitsua iritsi zen: helduen danborrada. Jose Kruz Armendariz omendu zuten. San Pedro egunean, urteroko prozesio eta mezaz

gain, bestelakoak ere izan ziren; tartean, Kulki umeendako eta txosnetako kontzertuak eta Txan Magoa, helduendako. Eguazteneko haurren danborradan, bestalde, bero izan zuten parte hartu zuten 155 umeek. Azkenik, atzoko Euskal Jaiak arrakasta izan zuen, urtero legez.

KULTURA > 'ERREKAN GORA' JAIALDIA

Oreka TX taldeak joko du gaur arratsaldean plazan

M.B. > ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, gaur, egubakoitza, hasiko da *Errekan gora* jaialdia. Ez da nolanhiko ekimena izango gaurkoa, Oreka TX taldeak emanaldi didaktikoa egingo du-eta arratsalde partean Herriko Plazan.

Arkaitz Martinez de San Vicente eta Igor Otxoa txalapartari bikainek erakustaldia egingo dute. Lehenik eta behin, plazara joaten diren guztiek txalapartari soinu ateratzen ikasteko lehen urratsak ikasteko

aukera izango dute. Jarraian, Kepa Junkeraren eskolatik etorritako bikoteak erakustaldia egingo du toki berean.

PINTXOAK ETA SAGARDOA

Ikuskizunak irauten duen bitartean, pintxoak eta sagardoa izango dira plazan. Bestalde, iluntzerakoan, *Nomadak TX* filma ikusteko aukera izango dute eskoriatzarrek. Dokumentalean, musikariek planetako lekuri ezezagunenetara bidaiatuko dute, bestelako ahots eta soinuen bila.

> GAZTEAK

Skate jaialdi erraldoia dago bihar arratsaldean tren geltoki zaharrea dagoen skate gunean

Eskoriatzako Gazteria Zerbitzuak antolatuta, skate jaialdia egongo da bihar, zapatua, herriko tren geltoki zaharrea dagoen skate gunean.

Gazteriako teknikari Maider Etxanizek jakinarazi digu lehia-keta egongo dela bi mailatan: 12 urtetik beherakoena, 18:00etatik 19:00etara; eta 13 urtetik gorakoena, 19:30etik 20:30era bitartean. Irabazleek skate materiala jasoko dute sari moduan. Jaialdiak irauten duen bitartean, musika jarriko dute skate gunean.



MIRIAN BITERI

Zubiate labea bisita daiteke

Zubiate labea eta XIX. mendeko buzingintza eta zeramikagintza gertutik ezagutzeko aukera dago joan den astelehena ezker. Interesa dutenendako bisita gidatuak antolatuta dituzte. Horretarako, baina, komeni da alde aurretik hitzordua hartzea 943 71 54 53 telefonoan.



JAIK > ALDAKETAK

Musika pieza eta dantza berriak estreinatuko dituzte Mairuaren Alardean

Mairuaren segizioari dagokionez, aurtengoa iazkoa baino handiagoa izango da; dagoeneko hasi dituzte entseguak

Bada, aurten ere hainbat aldaketa izango ditu Mairuaren Alardeak. Aurtengo alardea uztailaren 17an izango da.

DANTZA BERRIA

Alardeak izango duen aldaketa bat dantzei dagokiena izango da. "Dantzen ordena aldatu egingo dugu. Esan daiteke alardetik aparte egiten zela dantza orain arte eta aurten aparte izan beharrean alardearen barruan izango direla dantzak", azaldu du Valen Moñuxek, Mairuaren Alardea biziberritzeko taldean lanean diharduenak. Gainera, dantza berezia prestatu dute alardean egiteko. Dantza berri horrek bi

musika pieza izango ditu: bate-tik, Antzuolako zortzikoa eta bes-tetik, bertsoak zati bat. Neskek dantzatuko dute dantza berria.

MUSIKA PIEZA BI

Musikan ere aldaketak izango dira: Jose Ignazio Antsorenak idatzitako *Antzuola* izeneko lana joko dute; eta txistuarekin jotzeaz gain, Oinarin taldekoek dantzatu ere egingo dute.

Bestalde, Alfredo Gonzalez Chirlaque Bergarako Musika Bandako zuzendariak iaz idatzitako *Antzuolako Mairuaren Martxa* lanak hainbat aldaketa izango ditu. Iaz Bergarako Musika bandak jo zuen pieza; aurten, bai-

na, txisturako egokitu dute pieza hori eta Musika Bandak jo beharrean Antzuolako txistu taldeak eta Bergarako metal bosko-teak joko du.

SEGIZIOA, HANDIAGOA

Azkeneko alardean mairuaren segizioa bost pertsonakoa izan zen; bada, aurten, segizio handiagoa izango du mairuak. Dagoeneko segizioa antolatuta dute eta entseguak ere hasi dituzte.

Iaz egin zuten aldaketa nagusienetakoa ibilbideari zegokiona izan zen; luzeagoa egin zuten. Gainera, mairua hobeto karakterizatu eta musika eta dantza gehiago sartu zituzten.

> OSPAKIZUNAK

Bihar eta etzi Lizarraga auzoko sanmartzialak

Jaiak izango dituzte aste bukaeran Lizarragan. Bihar, 16:30ean plater tiroketa eta umeendako jolasak. 19:00etan txokolate-jana izango dute eta iluntzean bertso afaria Iñaki Gurrutxaga eta Jokin Uranga bertsolariekin. Ondoren erromeria Unanue, Agirre eta Biteri trikitilariekin.

Domekan, herriko gazte-txoek 11:30ean Lizarragako txirindulari igoera izango dute. 12:00etan meza izango da eta ondoren dantza saioa eta *lunch*-a. Arratsaldean erromeria izango dute Miren, Agur eta Gorkak girotuta.

> KULTURA

Goizperrek 50 urteko lanaren gaineko liburua aurkeztuko du

50 urte elkarlanean liburua aurkeztuko du Goizperrek datorren egunean. 2009an Goizper kooperatibak 50 urte bete zituen; eta, horren harira, Goizperko lehengo eta oraingo bazkideek elkarlanean liburu bat egin dute. Hala, uztailaren 8an 18:00etan aurkeztuko dute liburua Torresoroan. Aurkezpenean parte hartuko dute Pedro Iturbek, Antzuolako alkateak; Oskar Uzkudunek, Goizperko lehendakariak; eta Pako Legorburuk, Goizperko 11 fundatzaileen izenean. Herritar guztiak gonbidatuta daude aurkezpenera.

Bidegorriko lanak atzeratuta dabilta

Dagoeneko Aizti ondoko zubia eraiki dute eta Matz-Errekako aparkalekuan bidea egiten dihardute. Hala ere, bidegorriko lanak uste baino atzeratuagoak daude -arrazoietako bat da eraikuntza alorreko greba-. Uztailaren 27a dute lanak bukatzeko data, baina atzeratu egingo da. Diputazioa dabil lanok egiten.



A.E.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
**Apainketarako eta
industriarako pinturak**
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
**Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea**
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

II SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
Zurrategi plaza 4, behe. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**MUEBLES
IGEA**
Sukalderako eta
bainurako altza-
riak
Altzari rustikoetan

Ainara Inuntziaga > Kultura zinegotzia

"Herritar guztiei begira egindako jai egitaraua osatzen saiatu gara"

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

San Martin jaiak hasiko dira gaur arratsaldean, ohiko txupinazoarekin. Jaietan murgiltzeko gertu dira aramaioarrak, tartean Ainara Inuntziaga, Kultura zinegotzia eta Jai batzordeko burua. Gantzaga auzokoa, lehen agintaldia du Inuntziagak Udalean, gobernu taldean. Jaien gainean egin digu berba.

Nahi izan dituzuen jaiak izango dituzue aramaioarrok?

Bai, gustura gaude egitarauarekin. Iazko aurrekontu bera (32.000 euro) izan dugu eta ahalagindu gara ume, gazte, heldu eta zaharrendako ekitaldi interesgarriak ekartzen. Herritar guztiei begira egindako egitaraua da.

Gustura Jai batzordeak izandako parte-hartzearekin?

Aurten bestetan baino jende gutxiago ibili gara, Udaleko ordezkariok eta hainbat herritar. Gonbidapena herriko kultura talde guztiei bidali genien, baina... Edozein modutan, jaietako ekitaldi askotan, jaien barruan parte hartzen dute talde gehienek: Trikiti Eskolako kideek, Gazte Asanbladak, Txirritolak, erretiratuek, Kurtzetagain plater tiroketa elkarteak eta beste hainbatek.

Nork jaurtiko du txupinazoa?

Baserritarren lana aitortu nahi izan dugu aurten. Orain



Ainara Inuntziaga, jaietarako ateratako zapiarekin.

JONE INUNTZIAGA

dela bi urte Bertso Eskolakoek jaurti zuten eta iaz Sokatira Taldekoek, Olinpiadara joan zireneko 30. urteurrenean, hain zuzen.

Aurten, esan bezala, baserritik bizi direnak omendu nahi ditugu, bereziki emakume baserritarrek egiten duten lanari duen garrantzia emanda. Haien ordezkariaren batek botako du txupinazoa gaur, 19:00etan.

"Baserritarrak omendu nahi izan ditugu gaurko txupinazoarekin"

Esaldi lehiaketara ez zen inor aurkeztu. Jaietako leloa zein izatea nahiko zenuke?

Danok ondo pasau. Lehenago esandako moduan, adin guztietako herritarrendako jaiak dira

eta guztiek jaiekin gozatzea nahi dugu, besterik ez.

Umorerik, behintzat, ez da falta izan egitaraua erredaktatzeko orduan...

[Barre] Bai, beti saiatzen gara umorea sartzen, jaiak nolabait giroten. Txarrena hauxe izan da: batek baino gehiagok hor esandakoak sinetsi egin dituela!

Zu zeu jaizalea zara? Ekitaldirik gustukoena zein?

Saiatzen naiz jaiekin gozatzeko, eta, egia esateko, gaueko giroan ibiltzen naiz ondoen, orduko atzean geratu direlako laneko konpromisoak, ekitaldien menpe egon behar izatea, hain zuzen.

Jaien osterako pentsatu duzue beste kultura ekitaldirik?

Zerbait egongo da, bai. Dena dela, auzoetako jaiek hartzen dute lekukoa eta ahalegintzen gara auzoetan antolatzen dituzten ekitaldiei lehentasuna ematen.

Zer-nolako harrera izan dute azken barikuetan izan dituzuen musika emanaldiek?

Ona. Jendeak ondo hartu ditu kontzertuak, eta, hori ikusita, hurrengo urtean ere antolatuko ditugu, dena ondo badoa, behintzat...

> INFORMATIKA

KZguneko monitorea hilaren 12an eta 26an etorriko da

Udalak aditzera eman duenez, Aitor Madrid KZguneko monitorea uztailaren 12an eta 16an izango da Aramaion, 16:00etatik 20:00etara. Ohienez, hainbat ikastaro egiteko aukera eskaintzen du KZgunek. Interesatuek 945 44 54 36 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

> KINTADA

1945ean jaiotako irteera irailaren 18an Bizkaiko kostaldera

1945ean jaiotako aramaioarrek egun osorako irteera egingo dute Bizkaiko kostaldera irailaren 18an. Bazkaria Sukarrietan izango da. Izene-matea uztailaren 31ra arte dago zabalik. 60 euro ordaindu behar dira Euskadiko Kutxan: 3035 0001 50 0011 148540.

> GAZTETXOAK

Zuiako gaztetxoek topaketa Legution uztailaren 22an

Zuiako Koadrilako gaztetxoek Euskararen Eguna ospatuko dute Legution hilaren 22an. 12 urtera arteko gaztetxoei egin diete parte hartzeko deialdia. Izenematea liburutegian egin daiteke. Horretarako azken eguna uztailaren 16a izango da.

ARAMAIOKO UDALA
ARABA

"Aramaio Udaltzarako Jai zoriontsuak opa dizkizue aramaioar guztioi, eta bereziki etxetik kanpo zaudetenoi!"




Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16
• E-posta: udala@aramaio.org



Egitaraua

BARIKUA, 2

19:00 Txupinazue. Urteroko aglomeraziñuek ez errepikatzeke, pala erraldoixek ibiliko dittue udal langiliek, jendie atarateko.
19:10 Trikitilarixekin kalejira (Trikitixa eskolako kidiek). Bertso triki poteue (Gazte Asanbladakuek antolatute)
20:30 Papargorri Eskolaniaren emanaldixe Kultura Etxien.
23:00 Gose, Anger eta Kañeria 13. Salbuespen bat ein eta Aramaixo-Arrasate kamiñue zabalduko dau bi orduz Fomento jaunak, arrasatearrak trunkil ibiltzeko atzera eta aurrera.
23:30 Erromerixie plazan: Ostolaza eta Narbaiza bikotie.



zulatzaile bikote. Enkantie egongo da gero. Gehixen eskaintzen dauenak, harri-zulatzaile onena eruengo dau baserrire, olaxizendako zuluak eitteko, urtebeterako.
19:30 Kale animaziñue "Azido Folkloriko" dantzariexekin.
22:30 "Gaur yogur" ikuskizune elizako eskaileretan.
22:30 Basajaun taldiekin erromerixie.
22:30 Ondoren **BERBAPASIE** txapelketa txosnetan

ASTELEHENA, 5

11:30 Ume jolasak (Gazte lokalekuek eta Gazte Asanbladak antolatute).
13:30 Hipo eta Tomas-en emanaldixe plazan.
16:30 Koadrilen arteko pikie (Gazte Asanbladak antolatute).
19:00 Arrasate Musikalen emanaldixe Kultura Etxien.
21:30 Herri afaixe (tiketak salgai 12 eurotan). Afal ondoren "Pss...no hay prisa" taldearekin animaziñue.
00:00 DJxe txosnetan. Txokolatada txosnetan. Ondoren juergista onenari sari banaketa
05:34 "Urteko udaltzaina" aukeratzeko ekitaldixe, txosnetan. Ostien, frontoi ondoko semaforo barrixen inauguraziñue.

ZAPATUA, 3

11:30 Tortilla txapelketa (Patatak, gatza,olixue eta arrautzak antolakuntzak jarriko dittu).
12:00 Umiendako jolasak Kulkirekin.
12:30 Biotzatarrak Txaranga.
17:00 Briska eta Mus txapelketa jubilatuen lokalien. (Jubilatuen elkarteak antolatute).
17:00 Txirritolinpiadak. (Txirritolak antolatute).
19:30 Bentazaharreko mutiko alaiak.
23:00 Iñaki Basabe eta Jesus Nuñezen emanaldixe plazan (Euskal kanten emanaldixe). Eztarrixie beroketako ur sulfurosue edatie ona dala esan daue hainbat adituk. Edalontzi berezixek egongo die Bañera parkien horretarako.
00:00 Beste Bat, txosnetan.
00:00-03:30 Alkohol testinga: Preben jaixe.



BARIKUA, 9

21:30 Bertso afarixe (Tiketetak salgai 16 eurotan). Jon Maia, Julio Soto eta Manex Agirre.

ZAPATUA, 10

10:30 Aramaixoko pilota eskolako mutilek lagun arteko partiduek jokatuco dittue Arrasateko pilota eskolan aurka.
21:30 Pelota partiduek. 4 t´erdi banaka: Larrañaga- Irureta **BINAKA:** Andreu - Uz kudun Mendizabal - Aldape

DOMEKA, 4

11:00 Diana txistularixekin.
12:00 Meza.
13:00 Lagun Artea Dantza taldien emanaldixe.
16:00 Jolas parkie parkien (bis bis)
18:00 Herri kirolak plazan: 4 harri-



Ur ontziekin trebezia erakutsi beharko dute parte-hartzaileek.

GOIENKARIA

JAIK > TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA

Txirritolinpiadak: hiruko taldeak izango dira lehian zapatu arratsaldean

Aramaioke parkean hasiko da proba, 17:00etan; sari bikainak izango dira gazte eta nagusiendako

E.M. > ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteak antolatuta, Txirritolinpiadak jokatuco dira bihar, zapatua, Aramaioke parkean, 17:00etan hasita.

Izenematea ordu erdi lehenago egin ahal izango da, parkean bertan. Hirunako taldeak osatu behar dituzte parte-hartzaileek eta adinaren arabera bi maila bereiziko dituzte antolatzailiek: gazteena (1993tik 1997ra bitartean jaiotakoena) eta nagusiena (1993an baino aurretik jaiotakoendako). Gaztetxoek kasuan, ibilbide zertxobait motzagoa izango dute. Nagusiena, berriz, honakoa izango da: parkean hasi eta Iru-bireta, Uribarri, Aixola, Arrikoi-ti, Arraburu, Iturrieta eta Ibar-goiko bidegurutzetik igaro ondoren, parkean izango dute amaiera.

Arrikoitiraino bizikletaz joan beharko dute lehiakideek eta handik aurrera, parkeraino, korrika. Bukeraino, trebezia proba izango da parkean, ur ontziekin, ikastolako eskailaretan gora eta txirristan behera. Nagusien kasuan, 120 euro, 80 eta 60 euroko sariak jasoko dituzte talde onenek, hurrenez hurren. Gaztetxoek kasuan, berriz, 100 euro, 70

euro eta 50 euroko sariak izango dira. Aramaioke produktuekin osatutako otzara ere eskuratuko dute irabazleek.

AFARIA ETA JAIETAKO ZAPIAK

Astelehenean herri afaria izango da udaletxeko arkupeetan. Antolatzailiek dei egin diete herritarrei parte hartzeko. Tike-tak 12 euroren truke salgai dira herriko tabernetan. Era berean, jaietako zapiak ere jarri dituzte salgai.

Hurrengo barikurako bertso afaria iragarri dute eta txartelak ohiko tokietan eskura daitezke.

koplak

Antton Errarte



Martin Deunari

Bizente Goikoetxea abesbatzako zuzendaria da Antton Errarte. San Martinen omenezko koplak bidali dizkigu.

Martin Deunaren egun handia gaur ospatzerakoan Aramaioke zaindariaren bizitza degu gogoan.

Erromatarren soldadu izan zan aurrenik gazte aroan bake gudari bihurtu gero kristau fedearen arloan.

Karitatea zuen goiburua bere bizitza osoan bestearentzat egin zituen lan ugari eta sendoan.

Behartzu batez topo eginik ikusirik aren hotza errukituaz bere barruan bigundu zaion bihotza.

Goi-jantzi ederra kendu zuen da atera ezpata zorrotza erdi bitatik eman zion eztaiz gaixo bilotza.

Kristo berbera agertu zaion ori eginda batean eman zihoen oihal zatiaz jantzita glori betean.

Aramaioke herri guztia hemen daukazu oin pean zure laguntza behar degu ta hartu gaitzazu menpean.

EKI TABERNA



Razioak, ogitartekoak, hanburgesak eta entsaladak ostiral eta larunbat gauetan

•

Aurretik enkargatuz gero bazkari eta afariak.

ondo pasau jaixek!

Pedro Inazio Barrutia 9 • ARAMAIO
Tel.: 636 254 727

ITURRIOSTE

G A R A J E A

Nekazaritza makinak eta autoen

salmenta eta konponketa.

Olio, gurgil eta balazten konponketa

Ondo ibili jaixetan!!

Santi Kurtz plaza 14.
Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO



BEHI-ALDE

ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.

Olaeta-Aramaio (Araba)

Zuzenbide postala

Apartado 44

20500 Mondragon



Tel.: 945 45 01 00

945 45 03 15

Faxa: 945 45 01 00

945 45 03 15

ELGETA > JAIK

Gaur, goizean goizetik, gazteak eta erretiratuak protagonista

Hiru bazkari izango dira gaur: umeena, erretiratuena eta gaztetxeko lautadan egingo dutena

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Mozorro gauak eman ditu eman beharrekoak! Gaur, barikua, gaztetxoen eta erretiratuen eguna da, eta izango dute zertaz gozatu. Puzgarriak ia egun osoz egongo dira herrian eta erretiratuek urteroko bazkaria egingo dute. Bertan parte hartzera deituak daude 65 urtetik gorako elgetar guztiak, eta antolatzaileek ehun bat lagun batzea aurreikusten dute. Aurtengoan ere Peli Arantzabal soinu-jotzaile eibartarrak emango die bazkalostean dantzarako aukera.

GOZATEGI GAZTETXEAN

Gaztetxeko kideak ez dira gaurkoan ere besoak gurutzatuta egongo, eta bazkaria antolatuta dute. Ez hori bakarrik: gauerditik aurre-



Badira urte batzuk Elgetan paella-jana egiten dutela.

ARTXIBOA

ra Gozategi taldeak joko du gaztetxe ondoko lautadan eta 02:00etan DJ Elvis Cainok hartuko du lekuakoa. Tartean, txokolata eskainiko dute. Jaien ekuatorera iritsi izanak ez du gutxiago merezi!

TXARTELAK AURREZ SALGAI

Aurten jaietan egitekoak diren hainbat bazkaritarako txartelak aurrez ipini ditu salgai Jai batzor-

deak. Julianen kioskoan edo udaltxean eros daitezke oraindik bai gaurko umeen bazkarirako txartelak, bai biharko Herri Eguneko paella-janerako txartelak ere. Umeen bazkarirako txartelak bost eurotan daude salgai. Menua honakoa da: oilasko izterrak, patatak eta izozkia. Biharko paella-janerako txartelak, berri, hiru eurotan eros daitezke.



Iaz bezala, aurten ere entzierroa egingo dute udaleku irekietako umeek. L.Z.

ELGETA > UDALEKUAK

Bost hezitzaile, aurten, udalekuak dinamizatzeko

Astelehenean, hilak 5, ludotekan izango dira 09:00etatik aurrera umei ongietorria egiteko

L.Z. > ELGETA

Mireia Berriozabalek, Nagore Oiangurennek, Maialen eta Ane Elortzak eta Etor Garatek egingo dituzte aurten dinamizatzaile lanak astelehenean hastekoak diren Elgetako udaleku irekietan.

53 umeek eman dute izena aurtengo kanpainarako, eta gurasoak bilera batera deitu dituzte oraingo astean. Kanpainak uztailaren 5etik 30era iraungo du, astelehenetik barikura, 09:00etatik 13:00etara. Lehenengo ordubetea harrerarako tartea izango da, eta aisialdiko programazioari 10:00etan emango diote hasiera eguneroko.

UDA KIROLA PROGRAMA

Eta gogoratu behar da astelehenean, hilak 5, amaituko dela Uda Kirola programan izena emateko epea. Orientazioa, mendi bizikleta irteerak, piraguismoa, tai txi saioak eta irristaketa ikastaroa dira Udalak aukeran ipini dituen proposamenak. Baldin eta gutxieneko taldeak osatzen badira, uztailan eta arratsaldean egingo dira guztiak.

Prezioa ekintza bakoitzeko bost euro da. 10 urtetik gorakoendako dira orientazioa, mendi bizikleta irteerak eta piraguismoa. 4 urtetik gorako umeek hiruna saio tai txi eta irristaketa dituzte aukeran.

Imanol Albizu > Harri-jasotzailea

"Banabil entrenatzen, baina zapatuan jaso egin behar!"

L.Z. > ELGETA

Baietz bi minutuan ehun kiloko harria 20 bider altxatu! Desafio hori egin dio bere buruari herriko harakinak. Zapatuan egingo du saioa Imanol Albizuk, 12:30ean.

Ze sentazioekin zaude zapatuak?

Banabil entrenatzen, eta eginda daukat, baina zapatuan jaso egin behar da! Bezperan zaindu egin beharko dut nire burua.

Apustuak jakin-min handia piztu du herrian?

Baten bat etorri zait galdezka, baina bi minutuko lana da, eta niri ez zait

iruditzen jakin-min handia sortzeko moduko apustua denik.

Iaz baino ezagunagoa zara aurten herrian.

Bai; iaz Goenatxo eta biok egin genuen saioa. Aurten bakarrik egingo dut. Eta apur bat ezagunagoa naiz herrian, hori bai.



L.Z.

LEINTZ GATZAGA > OSPAKIZUNA

Txirrindulari lasterketa eta meza San Martin ospatzeko

32. Dorletako Ama txirrindulari lasterketa egingo dute domekan 23 urtez azpikoek eta elite mailakoek

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Domekan, hilak 4, Zurtitzako San Martin eguna ospatuko dute Goierri auzoan dagoen ermitan. Meza esango dute lehenengo (12:30), eta, urtero legez, mokadutxo eskainiko die gero Udalak elkartutako guztiei. Jan bitartean dokean jokatzeko zen ohitura sasoi baten, eta hori berreskuratu guran ibili dira hainbat urtetan.

120 KILOMETROKO IBILBIDEA

San Martin egunaren bueltan Dorletako Ama txirrindulari lasterketa egin izan dute azken urteotan eta aurten 32. proba izango da. 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulariek dute lasterketarako deia eta iazko datuak kontuan hartuz gero ehun kirolari baino gehiago elkartzeko dira hasiera puntuan (10:00).

Guztira, 120 kilometroko ibilbidea izango dute aurrez aurre. Hiru buelta egingo dituzte Arrasateko autobideko sarrerako biribilguneraino eta hiru bider igo beharko dute Gatzagako mendatea, mendiko sarirako puntuagarria izango dena. Bigarren aldiz igotzen dutenean, 11:55 inguruan, herritik pasatuko dira eta sari berezia izango du lehenengoak. Eta hirugarren aldiz igotzerakoan bukatuko dute lasterketa, txirrindulari batzordeko kideen esanetan 12:47 inguruan.

> INTERNET

Uztailan ere bi bisita egingo ditu Elgetara KZguneko tutoreak: astelehenean eta hilaren 19an

Astelehenean, hilaren 5ean, egingo du uztailako lehenengo bisita KZguneko dinamizatzaileak. Guztira, bi bisita egingo ditu uztailan, eta bigarrena hilaren 19an izango da. Biak ala biak arratsaldeko ordutegiarekin egingo ditu: 16:00etatik 20:00etara.

Hainbat ikastaro egiteko aukera emango du oraingoan ere. KZgunera hurbiltzen den 16 urtetik gorako edozein lagunak izango du bi orduko iraupena duten ikastaroetan parte hartzeko aukera. Sare sozialak, Skype, Google tresnak, Youtube, Softonic, Flickr, Picnik, JayCut, PayPal, Ubuntu, Audicity, Draw edo Twitter erabiltzen ikasi nahi izanez gero, hortxe aukera. Esan beharra dago ikastaro horiek doan direla.

VICKY

Zorionak,
elgetar guztioi!

edertze aretoa

Aurpegi eta gorputz tratamendu pertsonalizatuak.

- Aurpegi garbiketa
- Zimurrak
- Ahulezia
- Kouperosia
- Aknea
- Zelulitisaren aurkakoak

- Erreduktoreak algen estalkiarekin
- Depilazioa: argizariarekin eta elektrikoa

Pedikura eta manikura Makillajea Berehalako brontzeatua eguzki barik

Salbador 4, 2. ELGETA 616 58 17 81

■ NAREN FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA ZENTROA

"Gimnasia abdominal hipobarikoko eskolak emango ditugu irailean"

XABIER URTZELAI

Aretxabaletan dagoen Naren fisioterapia eta osteopatia zentroak bost urte beteko ditu aurten. Nagore Llodio (Arrasate), Miren Maiztegi (Bergara) eta Xabier Caminok (Oñati) egiten dute bertan lan, arlo ezberdinetan. Narenen urteurrena, baina, berrietasunekin dator, irailean hasita gimnasia abdominal hipobarikoko eskolak emango dituzte-eta.

Naren zentroan fisioterapia eta osteopatian oinarrituta egiten dute lan. Fisioterapia ezaguna da gure artean, baina ez horrenbesteraino osteopatia: "Osteopatia oso eremu zabala da, eta horren barruan sartuko genituzke, esaterako, haurdunaldiaren jarraipena, buruko minak, estresa, erraietako patologia -digestio pisutsuak edo idorreria-, hileroko minak...", azaldu digu Miren Maiztegi. "Eta istripuen ondorioz izandako kalteetatik errehabilitatzeko ere erabiltzen dugu osteopatia".

OSTEOPATIA

Hala, Nagore Llodioen esanetan, jendeak ez du jakiten osteopatiarekin lan daitezkeen gaitzak zeintzuk diren: "Lepoko mina dugunean badakigu fisioterapiaren zentro batera joan behar dugula, baina jendeak ez du jakiten, esaterako, osteopatiarekin buruko minak trata daitezkeela".

Errehabilitazioen kasuan, gainera, Narenen hainbat mediku aseguruarekin egiten dute lan.



Nareneko Xabier Camino, Miren Maiztegi eta Nagore Llodio (eserita).

EDURNE GOROSABEL

KIROL JARDUERETAKO LESIOAK

Herritarrok normalean lan edo auto istripu baten ondoren jotzen dugu fisioterapia eta osteopatia zentroetara, eta baita kirol jarduerak sortzen dituen lesioak tratatzera ere. "Giharretako arazoak direla, zuntz hausturak... horrelakoetan maiz etortzen dira hona, masajeak hartzera, bendeje funtzionalak jartzera. Hala, azkenaldian modan jarri da kinesiologia metodologia, kolorezko bendak izenarekin ezagunagoa: "Geroago eta ezagunagoa da metodologia hori, gorputzaren errekupeazio prozesua erraztu egiten du-eta".

IKASTAROAK IRAILEAN

Horrekin guztiarekin batera, Narenen gimnasia abdominal hipobarikoko (GAH) ikastaroak egingo dituzte, irailaren 6an hasita: "Gimnasia abdominal hipobarikoa prebentzio lana egiten du, batez ere emakumezkoetan. Hala, onuragarria da inkontinentziak saihesteko, eta baita erditze osterrako ere, besteak beste. Emakumezkoekin batera, baina, gizonezkoetan ere geroago eta kirolari gehiago hasi dira ariketa horiek egiten den lanaren osagarri modura".

Hala, ariketa horiek zelan egin irakatsiko dituzte: "Bospasei laguneko taldeak osatuko ditugu, baina lehenago banaka aztertuko ditugu pazienteak, balorazio bat egiteko. Hemen jende asko lanean errelebotan dabilenez, goiz eta arratsalde egingo ditugu".



OSTEOPATIA - FISIOTERAPIA ZENTROA



Nagore Llodio

elkargokide zkia.: 670

Miren Maiztegi

elkargokide zkia.: 1162

Xabi Camino

elkargokide zkia.: 1768

- Haurdunaldiaren jarraipena.
- Gimnasia abdominal hipopresiboa.
- Kirol lesioak.
- Errehabilitazioa.
- Kotxe istripuak.
- Masajeak.

Iban Velasco > Euskaltel Euskadiko txirrindularia

"Tourmaleten gora aurrean ibiltzea ederra litzateke"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Iban Velascok (Arrasate, 1980) debuta egingo du bihar hasiko duten Frantziako Tourrean. Urteak dira ibarreko txirrindulari batek ziklismoko hitzordu nagusian parte hartzen ez duena; Jon Odriozola oñatiarra izan zen azkena, 2001ean. Arrasatearrei dagokionez, baina, Velascok Enrique Alonsoren lekukoa hartuko du. 1992an Indurainek irabazi zuen Tourra eta Alonso 31.a izan zen.

30 urterekin helduko diozu txirrindularitzako hitzordu nagusiari.

Bai, esan daiteke txirrindularitzan nahiko berandu ibili naitzela denean. Berandu egin nuen profesional mailara salto, 26 urterekin, eta berandu egingo dut Tourrean debuta, 30 urterekin. Dena dela, saria da niretako, oso pozik noa.

Adinak, baina, emango du horrelako proba bati aurre egiteko patxada.

Bai. Gainera, txirrindularitza profesionalera berandu salto egiteak badu abantaila; izan ere, beste askok baino kilometro gutxiago ditut hanketan, eta ez

nago batere nekatuta. Uste dut adin polita dela lehian ibiltzeko.

Giroko mendate beldurgarriak gainditu dituenarendako Tourrekoak ez dira gogorragoak izango.

Azken asteotan egon gara Alpeetako eta Pirinioetako mendateak bisitatzen, eta haietako asko ez nituen ezagutzen. Giroan Mortirolo, Zoncolan eta halako portuak pasa ditut, eta baliteke horiek Tourrekoak baino luzeagoak izatea, baina malda txikiagoarekin. Uste dut Tourreko mendateetan ondo molda naitkeela.

Dauphine Libere lasterketan apirilean izandako erorikotik errekuperatuta ikusi zaitugu.

Bai, Fleche Wallone proban izandako erorikoan susto galanta hartu nuen, Tourra galduko nuela uste nuelako. Azkenean, baina, orkatilan bihurtura bat baino ez nuen izan.

Entzun dizut esaten, akaso, erorikoa ondo etorri zitzaizula.

Baliteke... Bestela ere astebe-teko atsedena izan behar

nuen, baina kolpeak derrigortu egin ninduen behar den moduko atsedena hartzera.

Euskal Herriko Itzulian erakutsitako gorputzaldia errekuperatu duzu?

Ez dakit esaten, azken lasterketan gustura ibili naiz, eta joan den astean atsedena hartu ostean azken astean ondo entrenatu naiz. Uste dut ondo iritsi naitzela Tourrera.

Igor Gonzalez de Galdeanok adierazi du taldeak ez duela sailkapen orokorrarekin itsutu behar.

Samuel Sanchez ondo dagoen edozer egiteko gauza da, baina Tourra lasterketa oso berezia da, eta badaude aurrean ibiltzeko Samuelek baino gaitasun handiagoa duten txirrindulariak, Contador, Armstrong... Sailkapenari begira egon baino, etapen bila joan behar dugu Samuelek, Txurrukarekin, Egoirekin edo beste edozeinekin.

Samuelek mendian ondoan beharko zaitu.

Hori izango da nire helburuetako bat. Mendateetan gora



Oñatin, Usako pasa eta Olatera bidean grabatu genuen Iban Velasco bizikleta gainean; bidean.

"Samuel Sanchezen ondoan ahalik eta kilometro gehien egin beharko ditut"

nahiko ondo moldatzen naiz, eta Samuelen ondoan ahalik eta kilometro gehien egitea izango da nire lana.

Lehenengo astean argi ibili beharko duzue erorikoekin.

Halaxe da. Ni ez naiz Tourrean sekula egon, baina ziklista guztiek gauza bera esan didate. 200 lagunek hartzen dute parte Tourrean, mundu guztia topera

"Armstrongen eta Contadorren arteko lehiak on egiten dio txirrindularitzari"

iristen da proba horretara, eta denok nahi dugu aurrean egon. Horrek estresa sortzen du tropelean, eta eroriko asko egoten dira.

Honezkeroko etaparen bat izango duzu begiz jota.

Pirinioetako etapak gustatzen zaizkit asko, bertan daude eta hemengo jende asko joango da gu animatzera. Hala, gustatuko litzaidake bertara ondo iris-

IBAREKO ZIKLISTA ETA ZIKLISTA OHIEN IRITZIA



Jon Odriozola
Ziklista eta zuzendari ohia

Oñatikoa asko pozten da Euskaltel taldera bere eskutik igo zen Iban Velasco Tourrean izango delako: "Erabakia hartu genuenean batek baino gehiagok zalantzak zituen, Velascok 26 urte zituelako, baina pozgarria da nirekin Orbean ibili ziren Alan Perez, Iban Velasco edota Ruben Perez bezalako gizonak Tourrean ikustea, lana ondo egin duten seinale".



Markel Irizar
RadioShack

"Velasco eta biok entrenamenduetan batzen ditugun datuak elkarri erakusten ibiltzen gara. Hark ez du horrelakorik esango, baina erakutsi berri dizkidan datuek erakusten dute oso-oso ondo dagoela. Hori bai, Tourrean indartsuenak daude. Adi ibili beharko du erorikoekin; ez dakit zergatik, baina aurten denok gabiltza lurretik bueltaka".



Enrique Alonso
Ziklista ohia

Arrasatear moduan, Enrique Alonsok pozik utziko dio Velascori Tourreko erreleboa: "Iban ez dut ezagutzen, baina hura ondo ezagutzen duten lagunek kontatu didate egin duen lanarekin merezi duela Tourrean egotea, inork ez diolako ezer oparitu. Esaten dute Tourrean eskuratzen dela txirrindulari karneta; Samuelendako laguntzaile aparta da".



Mikel Lizarralde
Ziklista ohia

Mikel Lizarralde garbi ditu gauzak: "Orain momentuan Euskaltelen ez dago mendateetan gora Velasco baino hobeto joango denik. Baina ikusi egin beharko da taldeak zenbaterainoko askatasuna emango dion. Samuel txarto badabil Velascok askatasun handiagoa izango du, baina ondo badago, Ibanek haren ondoan joan beharko du".



Jesus Arantzabal
Ziklista ohia

Jesus Arantzabal izan zen Tourrean esku hartu zuen lehen Deba-goiendarra, eta Luis Ocañaren ondoan ibiltzea egokitu zitzaion: "Oso ondo ikusten dut Velasco, gertutik jarraitu dut aurten, eta uste dut orain dagoela sasoi onenean. Baina argi ibili beharko dute hasierako etapetan; pabean, esaterako. Mendian ondo dabiltzanek sufritu egingo dute hor".



Oñatik gazte koadrilak animuak eman zizkion Tourrerako.

XABIER URTZELAI

tea, baina Tourra oso gogorra da, Pirinioetara azken astean iritsiko gara, eta ez dakit zelan egongo naizen.

Azpinarratzeko moduko mendate bat?

Tourmalet, esango nuke. Ez nuen ezagutzen, eta oso gogorra dela iruditu zait.

Tourmaleten gora ihes eginda doala amesten du Iban Velasco?

Bai, zergatik ez. Ametsak beti dira politak, eta ederragoak errealitate bilakatzen badira.

Aurtengo Tourrean pabean ere estreinatuko zara.

Nire gorputzarekin ez dago askorik egiterik. Amets Txurrukak eta biok komentatu dugu atzean pasako dugula tarte hori, nahiz eta minutu batzuk galdu. Samuelek ibili beharko du aurrean.

Lehia handia izango da Radio Shack eta Astanaren artean, Contadorren eta Armstrongen artean. Horrek ez dizue gainontzekoei itzal egiten?

Ez dut uste. Lehia horrek jendearen interesa pizten du, eta esango nuke txirrindularitzari on egiten diola.

Faboritorik?

Contador gainontzekook baino malda bat gorago dago.

> ESKUBALOIA
Soraluce BKEk Euskadiko txapelketan jokatu du

Denboraldi biribila eginda, igoera fasean azken unera arte Euskadiko txapelketara igotzeko lanean ibili da aurtien Soraluce BKE.

Muniategiren mutilek kantxan ez zuten helburua lortu, baina Egia taldeak uko egin dio kategoria horri, eta bergarrek egingo dute gora.

> PILOTA
Elgetako Lau t'erdiko txapelketako finalak gaur 22:00etan

Gaur, egubakoitza, jokatu dituzte Elgetako lau t'erdiko txapelketako finalak.

Kadete mailako partiduan Elezkano II.a eta Irribarri lehiatuko dira buruz buru eta 23 urtez azpikoetan Yoldik eta Larrañagak jokatu dute. 22:00etan hasiko dute pilota jaialdia.

> SASKIBALOIA
Muk beste hiru urtez babestuko du Ointxe! saskibaloiei elkarteak

Aste barruan egin duten prentsaurrekoan azaldu zuten MUko eta Ointxe! elkarteko ordezkariak beste hiru urtez batera egongo direla. Lehenengo taldeari dagoionez, Ointxe!-ko ordezkariak oraindik lanean dabilta taldeak lehen nazional mailan jarrai dezan kudeaketak egiten.

> FUTBOLA
Gazteendako F11 txapelketa antolatu dute Bergaran

Uztailaren 7tik 14ra bitartereko F11ko txapelketa antolatu dute Bergaran. Txapelketan izena emateko azken eguna gaur da, uztailak 2, kultura etxean. Txapelketa 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta hilaren 5ean batzarra izango dute kapitainek, 10:00etan, kultura etxean.

> ZIKLISMOA
Abian da Xantini lagunarteak antolatzen duen porra

Frantziako Tourrari begira Arrasateko Xantini taldeak antolatzen duen porrak arrakasta galanta izango du aurtien, berriro ere.

Porra horiek Monte eta Estrella tabernetan egin daitezke, apustu bakoitzagatik 30 euro ordainduta. Antolatzaileen esanetan, irabazleak 13.000 euro irabaziko ditu.



Jesus Arantzabal, 1973an, erlojupeko saioan.

GOIENKARIA

Hiru ziklista, eta Fagor taldea

Asko izan ez badira ere, gure ibarreko ziklistak nabarmendu egin dira Tourrean. Luis Ocañarekin batera lehiatu zen Jesus Arantzabal bergararra, eta ondoren etorri ziren Enrique Alonso (Zahor eta Festina) arrasatearra eta Jon Odriozola oñatiarra -lau Tour egin zituen-. Hala, Velasco Tourrean parte hartzen duen laugarren debagoiendarra izango da. Ezin da ahaztu, gainera, 60ko hamarkadan Fagor izan zela talde handienetakoa.

Abantailaz betetako kluba!

EKAINEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
 e-posta: kluba@goiena.com
 Kuota: 45 euro

REALEKO GORRO ETA BUFANDA

Bidali KLUBA GORROA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

REALEKO MOTXILA

Bidali KLUBA MOTXILA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

MUNDUMIRAKO MATERIALA

Bidali KLUBA MUNDUMIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

UMEENTZAKO PUZZLEA

Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

SARI NAGUSIA

APIRILA-EKAINA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN

- Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
- Basetxeta Auzoa.
- Gautegez-Arteaga (Bizkaia)
- www.nekatur.net/txohebenta
- www.toprural.com

Maiatzean 20 urte beteko ditugu; Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiak zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

www.danbaka.com



DANBAKA))))

IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debarrena edo Durangaldekua bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com

irailak

17

izena
emateko
azken
eguna



> **ELKARRIZKETA**
Aitor Zuberogoitiak dio "premia pertsonal batetik" idatzi zuela 'Surf' > 26



> **KONTZERTUA**
Maria Berasarte donostiarrak fadoak abestuko ditu Elorrión > 26



> **JAIK**
Elgetako jaiak eta Ferixa Nagusixa egingo dituzte aste bukaeran > 30

Gertu dago su artean trebe bihurtzeko tailerra

TAILERRA Atzo hasi ziren Arrasateko Gazte Bulegoak antolatutako udako sukaldaritza eskolak

ERREZETA FRESKOAK Uztailean egingo diren lau eskoletan errezeta freskoak gertatuko dituzte

30 URTETIK GORA Ikastaroan 14 lagunek eman dute izena; 30 urtetik gorakoak dira gehienak

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Atzo, eguena, arratsaldean ziren egitekoak Arrasaten udako sukaldaritza tailerra, Lanbide Hastapenekoek Debagoieneko Mankomunitatean dituzten instalazioetan, Gazte Bulegoak antolatuta. 14 lagunek eman dute izena ikastaro berezi horretan. Gehienak 30 urtetik gorakoak dira, neskak eta mutilak.

Uztailaren 22ra bitartean egingo diren lau eskoletan errezeta "freskoak, hotzak eta errazak" egiten ikasiko dute, Lanbide Hastapeneko sukaldaritzako arduradun Meritxell Estany eta Lanbide Hastapenean horren ikasle den lagun baten eskutik. Estanyren arabera: "Kontuan izan behar dugu bi orduko iraupena izango duten lau eskola bakarrik ditugula eta denbora horretan ez digula astirik ematen konplikatua diren errezetak egiteko. Gainera, etxean egiteko errezetak errazak izan daitezela ere gura dut".

ESANAK

"Etxean egiteko errezeta errazak izan daitezela ere gura dut ikastaro horrekin"

Meritxell Estany > Irakaslea

"Ikastera etorri dira, eta, hortaz, ikastaro praktikoak izan behar dute"

Meritxell Estany > Irakaslea

Atzo, esaterako, izokin marinatuarekin egindako hiru plater gertatzeko asmoa zuten: "Izokin marinatua egingo dugu eta jarraian, tartaletak, entsalada eta izokin-tarta prestatuko ditugu; hau da, aperitiboa, entsalada eta lehen platera. Asmoa da ikasleei erakustea produktu bakar batek hainbat erabilera izan ditzakeela".

PLATEREN DASTATZEA

Estanyk aipatu du gainerako egunetan entsaladak, arrain-eskabetxea, barazkiz egindako krema hotzak eta postreak gertatuko dituztela, besteak beste. Gaineratu du errezetak prestatzeaz gain, eskola amaitu aurretik platerak probatzeko aukera izango dutela ikasleek, horiekin ondo doazen ardoz lagunduta. Atzo, esaterako, ardo zuria hartu zuten izokinarekin.

Irakaslearen esanetan, "dastatzeek asko laguntzen dute. Lasai egoteko tartea da, zaporeen eta bakoitzari gehien gustatzen zaizkion produktuen gainean hitz egiteko momentua da. Ikastaro hasieran jendeak ez du elkar eza gutzen eta kosta egiten zaio parte hartzea; azken egunean, konfiantza dute elkarren artean".

PRAKTIKOTASUNA

Tailerra praktikoa da. Estanyk azalpenak ematen dituen bitartean, errezeta gertatzen lagun dezaten animatzen ditu gazteak: "Ni hasten naiz produktuak lantzen eta beti egoten da norbait laguntzen hasten dena; ikastera etorri dira, eta, hortaz, ikastaro praktikoak izan behar dute. Interesgarriagoa eta dibertigarriagoa da parte hartzea".



Gazteek udako plater freskoak gertatzen ikasiko dute; irudian, hainbat gazte, ogia egiten.

MIRIAN BITERI



UDAKO ERREZETAK

Izokin marinatua

OSAGAIK
1,5 kilo izokin fresko, bi xerratan banatuta. Azala izan behar du.
750 g gatz lodi.
759 g azukre.
Aneta freskoa.

PRESTAKETA

> Izokina xerratan badago ere, komeni da garbitzea, hezurrak kentzeko.
> Marinatua gertatu. Gatz eta azukrearen

erdi bat erretilu handi batean bota eta gainean solomoak jarri azala behera begira. Gainerako marinatuarekin tapatu. Hozkailuan sartu 24-36 orduz.
> Ur hotzarekin garbituko ditugu eta sukaldeko paperarekin ondo lehortuko ditugu.
> Ogi txigortu eta aguakatearekin jarri.
> 10-15 egun egon daiteke hozkailuan.

Limoi-krema eta fruta gorritzko tarta

OSAGAIK
Ore hautsia.
2 arrautza.
75 g azukre.
100 g gurin.
120 ml limoi-zuku.
350 g fruta gorri.

PRESTAKETA

> Limoi-krema gertatuko dugu arrautzak azukrearekin ondo nahastuz. Jarraian, gurina eta limoi zuku bota eta 10 minutuz

nahastu, krema loditu arte. Sutik kendu eta hozten utziko dugu.
> Supermerkatuan erositako ore hautsia molde laukian zabalduko dugu eta hori garbantzuarekin estaliko dugu, puztu ez dadin; jarraian, labean sartu 25 minutuz. Hozten utziko dugu.
> Orea limoi-kremarekin bete eta gainetik fruta gorriak bota.

Aitor Zuberogoitia > Idazlea eta irakaslea

"Premia pertsonal bat izan da lanaren abiapuntua"

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA
Bilboko Miguel Unamuno euskarazko saiakera saria irabazi du Aitor ZuberogoitiaK *Surflanarekin*. Bizitzaren erritmoen azelerazioari buruzko kontakizun pertsonala da saritutako lana. Zuberogoitia (1972, Etxebarria) Huheziko irakaslea da.

Zorionak! Espero zenuen saria jasatea?

Eskerrik asko. Aurkezten dugun momentutik beti dauka gu itzaropen txiki bat, bestela ez genukeen aurkeztuko. Gertatzen dena da Juan Zelaia saiakera sarira aurkeztu nuela aurrez lan hau. Han ez zuten saritu, baina etorri zitzaizkidan epaimahaiko kide bat, Jose Angel Irigarai, eta esan zidan oso ondo zegoela idatzita baina ez zela saiakera bat, ez zuelako tesi bat defendatzen. Tonua aldatu eta hurrengo edizioa aurkezteko esan zidan.

Bizitzaren erritmoen azelerazioei buruzko kontakizuna da.

Egin ditudan azken saiakerak oso akademiko eta neutroak izan dira, baina hau izan da premia pertsonal batetik sortutako lana. 1999-2000 inguruan globalizazioaren inguruan idazten ibili nintzen. Diskurtso handiak izan ziren, makroak. Diskurtso horretatik alde egin eta beste erregistro batera aldatzeko gogoia nuen. 2004ko urtarrilean hasi nintzen idazten, oharrak hartzen. Abiapuntua zen gaur egungo gizartea oso azeleratuta bizi dela eta dezelazio baten premia dagoela.

Azelerazio horrek eguneroko bizitzan zelan eragiten digu?

AEBetan badago korrante bat *-Attention crisis-* komunikabideen arloan diharduena. Prentsa zergatik irakurtzen ez den abiatuta hasi ziren lanean. Esaten



Aitor Zuberogoitia, bulegoan.

A.E.

"Korrante batek dio hain azeleratuta bizi garela, ez gara gauza arreta fokalizatzeko"

dute hain azeleratuta goazela eta hainbeste estimulu jasotzen dugula, ez gara gauza arreta leku batean fokalizatzeko.

Gaur egun belaunaldi gazteak *multitask* dira, arreta banatua dute. Beste korrante batek, ostera, baikorra da, eta dio

garuna ere eboluzionatzen dabilela eta gaitasun berriak gartzen.

Garapen horrek izango du mugarik?

Guk jarri beharko genioke muga. Xabier Letek dioen moduan: *Diru zakarrak mugarik ez du / lotuko dugu gogor eta estu.*

Zergatik Surfizena?

Metafora da, aldatzen dabilen gizartean olatu ona harrapatzearen beharra irudikatu gura dut.

MUSIKA

Elorrioko Musikaire jaialdia abian da

Maria Berasarte donostiarrak fadoak eskainiko ditu gaur Lourdes plazan

A.E. > BERGARA

Urtero bezala, udaren etorrerarekin Elorrioko Musikaire jaialdia martxan jartzen dute. Munduko toki askotatik etorritako artistak eta baita bertako artistek ere parte hartzen dute Musikaire jaialdian.

GAUR, BIHAR ETA ETZI

Aste bukaerari begira, ondo kontzertuak izango dituzte: gaur, 22:30ean Lourdesen, Maria Berasarte donostiarrak fadoak eskainiko ditu. Bihar, Che & Moche konpainiaren *Oua Umplute* lanak zuzeneko musika eta antzerkia konbinatuko ditu era dibertigarri eta umoretsuan. 22:30ean plazan izango da.

Domekan, 19:30ean, plazan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak izango dira.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



 <p>BERMEA 2 URTE</p> <p>1000 b/min 6 Kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA ALF 1106</p> <p>280 -105 175 €</p> <p>aspes</p>	 <p>BERMEA 2 URTE</p> <p>1200 b/min 7 Kg</p> <p>A Saikapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA ALF 1127</p> <p>350 -85 265 €</p> <p>aspes</p>	 <p>BERMEA 2 URTE</p> <p>1200 b/min 8 Kg</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>GARBIGAILUA F 2812</p> <p>455 -105 350 €</p> <p>FAGOR</p>	 <p>BERMEA 2 URTE</p> <p>171 x 60 x 60</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>HOZKAILUA AFD-171</p> <p>385 -105 280 €</p> <p>aspes</p>	 <p>BERMEA 2 URTE</p> <p>185 x 60 x 60</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>HOZKAILUA FFJ-6725 NF</p> <p>615 -105 510 €</p> <p>FAGOR</p>
 <p>BERMEA 2 URTE</p> <p>200 x 60 x 60</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>HOZKAILUA KGM-39A77 NF</p> <p>715 -105 610 €</p> <p>BOSCH</p>	 <p>BERMEA 2 URTE</p> <p>INDUKZIOA SPRING I-3LB</p> <p>370 -105 265 €</p> <p>edesa</p>	 <p>BERMEA 2 URTE</p> <p>A+ Saikapen energetikoa</p> <p>LABE PIROLITIKOA 6H-760 AX</p> <p>475 -85 390 €</p> <p>FAGOR</p>	 <p>BERMEA 2 URTE</p> <p>A Saikapen energetikoa</p> <p>LABE ETA BITROZERAMIKA STA-1410 B/N</p> <p>325 -85 240 €</p> <p>aspes</p>	 <p>110 X 70</p> <p>EVA MAHAI ZABALGARRIA + 4 AULKI VENECIA</p> <p>599 €</p>

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberrako energia aurrezteak.

A+ >>> 70%
A >>> 45%
B >>> 25%

Biltegioko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaion. 92 m²ko etxebizitza salgai erdialdean. 30 metro koadroko ganbararekin. Berri-tu beharra du. 99.000 euro. Jai-
ne. 615 73 85 77.

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro erabilgarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trasteleku. Prezio interesgarria. 659 64 67 38.

Elgeta. 85 metro koadroko duplexa salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela beheko suarekin eta berogailua. Guz-tiz jantzia. 180.000 euro nego-ziagarri. Aukera aproposa gazte edo bikotearentzako. Zatoz ikustera. 685 75 18 91

Oñati. Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiruro logela, sukaldea, bi bainu-gela, terraza. Laugarren solai-
ra. Prezioa: 228.100 euro (38.000.000 pezeta). Garajea aukeran. 945 22 26 62 edo 615 70 86 04

Oñati. San Lorentzon etxebizitza salgai. 96 metro koadro gehi garaje itxia gehi ganbara. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela, komun eta bi terraza. 634 43 78 19.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean, Biteri plazan. Sukaldea, egongela, komun, hiruro logela eta ganbara. 605 43 29 31.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukalde-jangela, egongela eta bainugela. Trastelekuarekin. 699 15 24 00 edo 615 73 87 01.

Bilbo. Etxebizitza ematen da errentan Begoña auzoan, ikas-leentzako. Metroko sarreratik 200 metrora. Hiru logela, egongela eta jangela. Bi komun. 605 77 55 56.

Oñati. Errekalde kalean 3. solai-
rria errentan ematen da. Etxea hiruro logela, komun, egongela, bi terraza eguzkitsua eta sukalde handi batez dago osaturik, guztiz jantzia. Etxeak igogailua du. 652 76 63 46.

Oñati. Lope Agirre kalean 110 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi komun. 659 53 87 62.

Torreveja (Alacant). Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4-6 pertsonarentako lekua. Bi logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteak garaje eta igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 450-500€ ordain ditzaket hilean. 699 66 33 63.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Arrasatearra etxerako kide bila. Erdialdean eta egoera onean. 300 euro, gastuak barne. 606 74 42 37.

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. 630 71 35 83.

Arrasate. Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da uztail erditik aurrera. Bertan langileak bizi dira. 653 71 44 57.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxea osatzeko Udalpe kalean, Unibertsitatetik gertu. Berogailuarekin. Oso eguzkitsua. 200 euro. 646 01 36 27.

Arrasate Uribe Auzoan pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxebizitza handia, kale-fakzioa eta elektrotresna guztiekin. Langileak nahiago dira. 657 72 51 65.

Bilbon. Debagoieneko 2 neska pisukide baten bila gabilta. Pisua Deusto auzoan dago. Blas de Otero kalean. 325 € hilean, kalefazio zentralarekin. 685 76 70 82 edo 680 79 48 85.

Eskoriatza. Bi logela dauzkat etxebizitza berria osatzeko. Unibertsitatetik gertu. Erdigunean. 650 82 83 48.

Pisukidea Pertsona bat behar da pisua osatzeko, Udalpe kalean, unibertsitatetik gertu. Berogailuarekin eta oso eguzkitsua. 646 01 36 27.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. 27 metro koadroko garajea salgai Obenerrekan. Ate automatikoarekin. Bi auto sartzeko aukera. Prezioa aztergai. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Anagatik galdetu. 662 34 77 77.

4/ LANA

402. ESKAERA

Aretxabaleta. Emakume gaztea atariak eta tabernak garbitzeko gertu. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko; nagusi edo umeak zaindu, plan-txa eta abar. 699 54 17 27.

Arrasate. Neska gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo elkar-teak garbitzeko. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. Deitu 618 00 08 28 edo 943 79 82 43 telefono zenbakira.

Arrasate. Neska lanerako gertu. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin edota taberna zein jatetxe-
ak garbitzeko. 610 12 06 73.

Bergara. Neska bergarar euskalduna (magisteritza Haur Hez-kuntzan diplomatua eta espe-rientziarekin) uztail arratsaldean haurrak zaintzeko gertu. 636 27 43 88.

Bergara. Neska euskalduna uztailan umeak zaintzeko prest. 615 76 29 25.

Bergara Neska hainbat lan egiteko egiteko gertu; nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanak egin. Esperientzia eta erreferentzia onak. Deitu 677 73 79 59 telefonora.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarki iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com edo http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Debagoiena. Emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu, eta baita etxeko lanak egiteko ere. Esperientzia handia. 680 49 11 45.

Debagoiena. Igeltsari ofizial, leunketa eta bestelako lanetan jardungo nuke. Rolando. 639 41 68 38.

Debagoiena. Neska gertu elkar-te, atari edota tabernak garbitzeko. 699 60 91 90.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo etxeko-lan eta garbiketaketak egiteko. 678 80 11 54.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbiketa eta abarretan jarduteko gertu. Bi urteko esperientzia sukaldean. Autoa daukat. 666 21 88 95.

Debagoiena. Tabernan urte askoan ibilitakoa naiz, zerbitzari. Herriko jaietan edo aste bukaeretan lan egingo nuke. Edorta. edortamendi@yahoo.es. 617 89 41 03.

Debagoiena 32 urteko mutil euskalduna gertu nagusiak zain-
tze, etxe-eneo baserrian. Erizain-
tzako modulua amaituta. Abuz-
tuan ere bai. 619 08 40 08.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

DBHko eskolak jasoko nituzke. 18:00etatik aurrera deitu. 605 26 24 62.

502. EMAN

Aretxabaleta. Bigarren batxilergo irakaskuntza ematen dira, udan eta ikasturtean zehar. 653 01 76 67.

Arrasate edo Bergara. Ekainean eta uztailan umeak zain-
tze edo ume txikiak eskola partikularrek emateko prest dagoen neska euskalduna naiz. 618 43 60 35 edo 943 76 32 27.

Arrasate. 6 eta 12 urte arteko umeak eskola partikularrek emateko prest. Eskoletan esperien-
tzia daukat. 635 75 05 26.

Arrasate. Arrasateko eskolatan esperientzia duen irakaslea udan eskola partikularrek emateko prest. Edozein ikasgai. 635 75 05 26.

Bergara. Ekainean, uztailan eta baita urtean zehar ere Lehen Hezuntzako eskola partikularrek ematen dira. 676 22 82 56.

Bergara. Marraketa eta pintura eskolak ematen dira uztail-eko 1. hamabostaldian, 10:00-12:00. Arrizuri 5, 1.a C. 651 74 21 54.

Eskola partikularrak. Ingenieri teknikoan udan eskola partikularrek emateko prest. DBH eta

batxilergoan esperientzia. 685 70 17 09.

Oñati. Esperientzia handia duen irakasleak eskola partikularrek ematen ditu, urte osoan eta udan. LH eta DBH. 943 78 28 43.

Oñati. Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrek ematen ditut. 666 21 73 48.

Oñati. Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrek ematen ditut. 666 21 73 48.

Oñati. Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrek ematen ditut. 666 21 73 48.

Oñati. Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrek ematen ditut. 666 21 73 48.

Oñati. Esperientziadun irakaslea naiz eta eskola partikularrek ematen ditut. 666 21 73 48.

Oñati. Esperientziadun irakasleak LH, DBH eta batxilergoko eskola partikularrek ematen ditu udan eta ikasturtean zehar. Irakaslearen edo ikaslearen etxean. 649 27 63 50 edo 943 53 28 15.

Oñati. Esperientziadun irakasleak LH, DBH eta batxilergoko eskola partikularrek ematen ditu udan eta kurtsotan zehar. 649 27 63 50.

Oñati. Ingeniaritzako titulua eta irakaskuntzan esperientzia handia duen neska udan DBH eta batxilergoko ikasleei klase partikularrek emateko prest. Matematika, fisika, marrazketa eta abar. 678 27 27 57.

Umeak zaintzeko edo ume txikiak eskola partikularrek emateko prest nago ekainean eta uztailan. 618 43 60 35 edo 943 76 32 27.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Peugeot Boxer 2.5TD furgone-ta salgai. Sukaldea, hozkailua, komun eta lau pertsonaren-dako ohea. Sei bidaiarirrenda-ko homologatua. Bizikletak eta eskiak eramateko, atzeko bola, goiko parrilla eta alarma. 653 73 08 04.

8/ DENETARIK

801. SALDU

BMX bizikleta salgai, ez delako erabiltzen. Oso egoera onean

dago eta ez du erabilpen han-dirik izan. Manillar, kubiarta eta freno berriekin 130 eurotan. 600 71 81 15.

Baby-cook berdea. Umeen jana-ria gertatzeko irakigailu eta ira-biagailua. Egoera oso onean. 80 euro. Arratsaldean deitu mese-dez. 607 06 22 20.

